

2.008

LEITZA 2008

Egilea: Koldo Fagoaga







30
ZENBAKIA

TIBURTZIO DONEAREN

DE OTTU

AZALAREN LEHIAKETAN parte hartu duten kartelak



2008ko Plazaola Aldizkarirako azalaren lehiaketan parte hartu dutenak honako hauek dira:

1. Koldo Fagoaga - 2. eta 3. Maialen Gonzalez - 4. Maixux Eskudero eta Jasone Sagastibeltza

Alkatearen agurra

Kaixo Leitzarrak!

Urtero bezela hemen datozkigu Leitzako pestak, egitarau zabal eta partehartzailearekin; badakizue, egitarauaz aparte norberak jarri behar du pestak egin eta bizitzeko gogo, baina horretarako guk aitzakia gutxi behar dugu erakutsi dugun moduan...

Urte bat; urte bat daramagu Leitzako herri honi bide bat iriki nahirik, ixil eta gelditu gabe lanean; une hontan eskerrikasko esku bat botatzen diguten guztiei eta bereziki herriarentzat lan egiten duten Leitzar guztiei ere!

Inor ahaztu nahi gabe: Aurrera, dantzari, musikari, entrenatzaile, irakasle, gazte, kirolari, heldu, langile, kultur talde, pesta batzorde, euskaltzale, kantari, antzerkilari, buruhaundi, erraldoi, bertsozale, emakume, zinemazale, guraso, ikasle, ehoziri lanzale, etorkin, mendizaleak, baserritarrak, kaskagorrak, elkarteak... OKILLE, denak herri bat egiten dugulako.

Urte guztian zehar lanean aritzen diren horien artetik batzuk botako dute aurten etxafueroa: borondatezko suhiltzaileak! Bejondeizuela, gero eta borondatezko lan eta auzolan gutxiago dagoen hontan; merezitakoari berea!

Amaitzeko, aipamen berezia etxean behar luketen guztiei: lehenbailehen gure artera itzul daitezela.



Gora Leitzeko Pestak!

Pestak euskeraz bizi eta kotxea etxen utzi!



Plazaola...

30. zenb.



Leizako aldizkaria.

Hau izan da gazteen saileko azalaren lehiaketako irabazlea.

Lierni Sestorain Saralegiri ZORIONAKI!



abuztuak **2** larunbata

REPARTO EUNE

12:30 **Poteoa** Gaiteroakin.

13:30 Eskalarien **bazkaria** Aurreran.

16:00 Auzoz auzo **PLAZAOLA** aldizkariaren **banaketa**; trikitilari, txistulari, akordeoilari eta gaiteroen laguntzaz.

17:00 **Txirringulariak** industrialdean.

08

LEITZA

Tiburtzio donearen pestak

abuztuak 3 igandea

UMEEN EUNE

08:00 **Diana** Txisturariekin.

09:00 Korporazio Txikiak eta Udal Ordezkariek elkarrekin gosaria.

10:00 **Meza** korporazio txikiarekin.

ondoren Aurrera Pilota Eskolako gazteak "fueraketan" arituko dira ondoren beste partidu bat plazan.

Anartz Olano eta Mikel Hernandorena

Vs



Mikel Sagastibeltza eta Xabier Jaunarena

11:30-14:30 Umeentzako puzgarrik eta jokoak plazan.

16:30-18:30 Umeentzako puzgarrik eta jokoak plazan.

18:30 Aurrerako dantzari txikien ikuskizuna plazan eta ondoren **Ingurutxo irekia** umeentzat.

20:00-00:00 **TRIKIDANTZ** taldea. Ordu berean buruhaundiak eta zezen txikiak ere aterako dira.



abuztuak 9 larunbata

11:30 Kuadrillen arteko **Herri Kirolak**. Tartean harri apustua izanen da **Zubillaga** eta **Aguileraren** artean.

14:00 Torreko 14. Urteurreneko **bazkaria**.

17:30 Kuadrillen arteko eskolako **futbol txapelketaren finala**.

18:30 **ELECTROCHARANGA** talde Kataluniarraren kalejira erreindikatioa.

19:00 Plazako pilota txapelketako finala.

ondoren Atakabeltzan arratsaldekoa.

00:00 **Kontzertuak** Atakabeltza Gaztetxean.

- Gualitxo

- Rifter



abuztuak 10 igandea

PESTA BEZPERA



Eguerdian Euskal Herriko **Sega Txapelketako Finala**.

14.30 Jubilatuen **bazkarie**.

18.00 **TXUPINAZOA** eta ondoren Plazaola Aldizkariko azalaren irabazleei saria emanen zaie.

Ondoren Leitzako txistulari, dultzainero, buruhaundi, erraldoi eta "Incansables" txarangarekin herrian barna kalejira.

22.00 **Suzko zezena**.

00.00 **TXIMELETA** Taldea.

00.30 **INCANSABLES** ronda egitera.

abuztuak **11** astelehena

TIBURTZIO DONEAREN EGUNA

08:00 **Diana** Txistulariekin.

09:00 **Entzierroa** eta behiak plazan, ondoren gurpildun zezenen entzierroa Gaztagañoako ataritik abiatuta.

10:30 Meza.

ondoren **Hamaiketako irikia** plazan.

12:00 **Aurrerako Ezpatadantzarik** eta ondoren afizionatuen arteko **pilota partidak** plazan.

Onsalo eta Mitxelena

Vs

Picabea eta Iriarte

13:00 Aurreratik **Incansables** txaranga aterako da.

18:00 **Zezenak** Plazan.

19:00 **Herri Kirolak** Plazan.

Aizkoran; Jon Rekondo eta Donato Larretxea

Vs

Floren Nazabal eta Dani Vicente

Harrijasotzen: Perurenatarrak, Mikel Saralegi eta Josexo Urrutia

Aizkolari gazteak; Mikel Zabaleta eta Iker Vicente

ondoren **Goxokiak** banatuko dira eta Musika Eskolakoen emanaldia plazan.

20:30 **Buruhandiak** Incansables txarangarekin.

22:00 **Suzko Zezena**.

00:00 **GAUBELA** Taldea.

00:30 **Incansables** Txaranga aterako da gaueko ronda egitera.





abuztuak 12 asteartea

PESTA BIGARRENA

08:00 **Diana Txistularikin.**

09:00 **Entzierroa** eta behiak plazan. **Ondoren** gurpildun zezenen entzierroa Gaztagañoako ataritik.

12:00 **Txotxongiloak eta aparra** Plaza Zarren.

13:00 Aurreratik **Incansables** txaranga.

17:30 **Zezenak** Plazan

18:30 **Aurrerako Dantzariak** Plazan.

ondoren **Goxokiak** banatuko dira plazan.

segidan Incansables txarangarekin **poteo berezia**, buruhandiak ere aterako dira.

20:00 **Pilota partida profesionala** amazabal pilotalekuan.

Retegi Bi - Eskudero	Bengoetxea VI - Beloki
Vs	Vs
Chafee - Oteiza	Olaizola II - Mendizabal

21:30 **Suzko Zezena**


22:00 **Herri aparria** plazan

Ondoren apaloste berezia izanen da txaranga, txistulari eta abarrekin.

01:00 **PERFUSION** perkusio taldearen ikuskizuna plazan.

02:00 **Incansables** Txarangarekin Kalejira.

03:00 Leitzako **ligatzeko Ingurutxoa** Plazan.



08

LEITZA


Tiburtzio donearen pestak



abuztuak 13 asteazkena

PESTA HIRUGARRENA


- 08:00 **Diana** Txistulariekin.
- 10:00 Plater tiraketa baztarlan
- 09:00 **Entzierroa** eta behiak plazan. Ondoren gurpildun zezenen entzierroa Gaztañagatik.
- 11:30 **Paella lehiaketa** plazako karrapen.
- bitartean Plazan Aurrera pilota eskolakoen partidak.
- | | |
|-------------------|--------------------------|
| Aramburu - Beraza | Jaunarena - Zabaleta |
| Vs | Vs |
| Apezetxea - Mina | Sagastibeltza - Galartza |
- 13:00 Aurreratik **Incansables** txaranga
- 18:00 **Zezenak** Plazan
- 19:00 **Bertsolariak** plazan. Andoni Egaña, Maialen Lujambio, Amets Arzallus, Xabier Silveira Iker Zubeldia, Miel Mari Eloseggi "Luze"
Gai jartzaile Leitzako Bertso Eskolakoak ariko dira.
- ondoren **Goxokiak** banatuko eta **musika** eskolakoen emanaldia.
- 22:00 **Suzko zezena.**
- 00:00 **GARRAXI** taldea plazan.
- 00:30 **Incansables** txaranga erronda egitera





abuztuak **14** osteguna *PESTA LAUGARRENA*

- 08:00 **Diana** Txistulariekin.
- 09:00 **Entzierroa** eta behiak plazan ondoren gurpildun zezenen entzierroa Gaztañagatik.
- 10:30 **Gaztetxeen topaketa.**
- 11:30 **GOITIBEHERRAK** hilerritik hasi eta Peritzeko atarira.
- 13:00 Aurrera Elkartetik **Incansables** txaranga aterako da.
- 14:30 **Gazte bazkaria** Atakabeltz Gaztetxean.
- 17:00 **Gazten jokoak** plazan. Zezenekin batera zenbait joku egingen direlarik
- 18:00 **Zezenak Plazan** (jokuak barne)
- 19:00 **Breakdance** emanaldia plazan **INTXAURBREAK** taldearekin.
- ondoren **Goxokiak** banatuko dira plazan eta **Incansables Txaranga** eta buruhandiak aterako dira.
- 22:00 **Suzko zezena**
- 00:30 **"Space Mukaki"** taldeak kalejira ikusgarria herrian barna.
- ondoren **ESNE BELTZA** taldea plazan



08

LEITZA

Tiburtzio donearen pestak



abuztuak **15** ostirala

EZKONDU ETA BIKOTEEN EGUNA

08:00 **Diana** Txistulariekin.

09:00 **Entzierroa** eta behiak plazan. Ondoren gurpildun zezenen entzierroa Gaztañagatik.

12:00 **Herri kirolak** plazan.

Aizkoran:
Ruben Saralegi - Arkaitz Olano
Vs
Santi Olano - Amillano

Zerra Motorrarekin:
Abel Bizentek
egurreko figura eginen du.

Laisterkariak:
Fernando Irazoki Vs Iraitz Uriarte
Iñigo Irazoki Vs Iñigo Dorronsoro

13:00 Aurreratik **Incansables** txaranga.

14:30 **Aurrerako bazkideen bazkaria.**

18:00 **Ezkundu eta bikoteen entzierroa** eta zezenak plazan.

19:00 **Ezkondun eta bikoteen INGURUTXOA** plazan.

ondoren **Goxokiak** banatuko dira plazan eta **Musika Eskolako**en emanaldia.

20:00 **Buruhaundiak** eta Incansables txaranga Aurrera Elkartetik.

21:00 Presoen aldeko **kalejira.**

22:00 Preso eta Errefuxiatuen aldeko **herri aparria** Torrean.

22:00 **Suzko zezena.**

00:00 **Imperial Azteca** mariatxia plazan.

ondoren **Incansables** txarangarekin "pobredemie"
Labetxeko ataritik aterata.



SABADO 2 DE AGOSTO

Reparto de programas

- 12:30 Poteo con gaiteros.
- 14:30 Comida.
- 16:00 Reparto.
- 17:00 Ciclistas.

DOMINGO 3 DE AGOSTO

Día del/la niñ@

- 08:00 Diana.
- 10:00 Misa presidida por la corporación de l@s niñ@s del pueblo.
- 11:30-
- 14:30 Hinchables.
- 16:30-
- 18:30 Hinchables.
- 18:30 Dantzaris.
- 20:00-
- 00:00 TRIKIDANTZ

SABADO 9 DE AGOSTO

- 11:30 Herri kirolak.
- 14:30 Comida 14^º aniversario de Torrea.
- 18:30 Electrocharanga
- 00:00 Conciertos en el Gaztetxe

DOMINGO 10 DE AGOSTO

- ??:?? Segalaris
- 14:30 Comida de jubilados
- 18:00 Chupinazo
- 22:00 Toro de fuego
- 00:00 TXIMELETA

LUNES 11 DE AGOSTO

- 08:00 Dianas.
- 09:00 Encierro y vacas
- 12:00 Misa
- 12:00 Ezpatadantzaris
- Después, partidos de pelota
- 18:00 Toros
- 19:00 Herri Kirolas
- 20:00 Toros de fuego
- 00:00 Gaubela

MARTES 12 DE AGOSTO

- 08:00 Dianas.
- 09:00 Encierro y vacas.
- 12:00 Marionetas y Espuma
- 17:30 Vacas
- 18:30 Dantzaris
- Después, poteo especial con txaranga
- 20:00 Partido pelota profesional
- 21:30 Toro de Fuego
- 22:00 Cena popular en la plaza
- 01:00 Persussion
- 02:00 Txaranga
- 03:00 Ingurutxo

MIERCOLES 13 DE AGOSTO

- 08:00 Diana.
- 09:00 Encierro y vacas.
- 11:30 Concurso de paella y pelotaris
- 18:00 Toros
- 19:00 Bertsolaris
- 22:00 Toro de fuego.
- 00:00 Garraxi

JUEVES 14 DE AGOSTO

- 08:00 Dianas.
- 09:00 Encierro y vacas.
- 11:30 Goitiberas.
- 14:30 Comida en el Gaztetxe.
- 17:00 Juegos en la plaza.
- 18:00 Vacas.
- 19:00 Breakdance.
- 22:00 Toro de Fuego.
- 00:30 Space Mukaki y Esne Beltza.

VIERNES 15 DE AGOSTO

- 08:00 Dianas.
- 09:00 Encierro y vacas.
- 12:00 Herri Kirolak
- 14:30 Comida de socios en el Aurrera
- 18:00 Encierro y vacas
- 19:00 Ingurutxo
- 21:00 Kalejira pro presos
- 22:00 Toro de Fuego
- 22:00 Cena pro presos y refugiados en Torrea
- 00:00 Mariachi Imperial Azteca
- Después, POBRE DE MI

OHARRA

1. UDALAK ez du ZEZENETAN gerta daitezkeen istripuen erantzunkizunik hartzen.
2. EGITARAUA borondatearen truke banatuko da. UDALETXEAN, LIBURUDENDETAN eta TABERNETAN ere salgai egonen da.
3. ZEZENETAN dabiltzanei eskapa bidea errezagoa egiteko, barreren gainean inor ez esertzea eskertuko genuke.
4. Zezen suzkoan gerta daitezkeen erreketak edo bestelakoak kargu ez gara egiten.
5. ARRRAIN PAELLA lehiaketako arauak:
 - Bakoitzak bere sua eraman beharko du. Horretarako osagaiak ere norberak eraman beharko ditu.
 - Nahitaezko osagaiak: Arroza (noski!), arraina, barazkiak... Hortik aurrera bakoitzaren gustoaren eta trebeziaren arioren, eta betiere aurreko osagaiak errespetatuz.
 - Epai mahaiak hartuko du erabakia.
 - Gero nahi duenak bertan bazkaltzeko aukera izanen du. Mahaiak eta aulkiak bertan izanen dira.
6. Pesta laugarrenean GOITIBERAK izanen dira eta ohar berezia luzatu nahi dugu. Hillerritik hasi, Joandegia, Errekaldenea, Malesakenea eta Gaztelunetik Peritzerainoko ibilbidea aginen dute. Beraz, bidea itxita egonen da eta bezperatik kotxeak kentzea eskatzen da. Antolaketa lanetan Nafarroako Federazioarekin batera ari gara, beharrezkoak diren anbulantzia, aseguru eta babes-jantziak izanen direlarik.

PLAZAOLA ALDIZKARIAREN ANTOLATZAILEEN OHARRAK

1. Plazaola Aldizkariaren antolatzaileek ez dute zertan ados egon behar bertan agertzen diren iritzi desberdinetako idazkiekin.
2. Lanak bidaltzen dituztenek beren izenak jakinarazi behar dizkie aldizkariaren antolatzaileei, sor daitezkeen arazo legalak idazkien egileen erantzunkizuna izanen direlarik.
3. Gure eskerrik zintzoenak, aldizkari hau osatzeko, bere lanarekin lagundu duten idazle eta baita azalaren lehiaketan parte hartu dutenei ere

Nere lagun eta adizkide onak zeraten denoi, agur bero bat bidaldu nai nizueke, izan ere nik Leitzari sor bait diot naizen dena. Au ez det txantxetan esaten, egia dalako baizik, eta nere borondate ona nabaria da leitzatarrak ongi ikusi naia bereziki.

Leitzan askorekin len banuen konfiantza eta ura ez det galdu nai, iruditzen zait oraindik ere, eta aurrerantzean, gauza bera espero det; elkarri esku emanda ibili bear genduke aldegun une gozo guztietan.

Leitza oso ezaguna da euskal erri osoan batez ere neri ala iruditzen zait Plazaolako Franki baserrian nere ama zanak ematen zizkidan muxu goxo aietaz gogoratzen naiz.

Eta orain, aiskolariak goraldtu ditzagun merezi duten bezela. Martin Garziarena eta Patxi Astibia, baña gogoan artu aiek ezezik Leitzako kiroriak bakarrik aipatu nai nituzke artikuluan ontan inor bazterrean utzi gabe. Beste kirolari batzuk ere badira fama aundikoak: arri aundiak jasotzen lenda bizi asi zana, Iñaki Perurena da eta urrengo Mikel Saralegi, bikote arrigarria askoren ustez. Eta orain fama aundia artzen ari dana Inaxio Perurena gaztea da; Iñakiren semea; esku bakarrez baliaturik eta abar, Inaxio Perurena eta Mikel Saralegi ai zer nolako bikotea!; orain pelotariak:

Bi pelotari zoragarri daude gaur Leitzan: Abel Barriola bat eta Oinatz Bengoetxea bestea. Biak dira pelotari ukusgarriak. Nere ustez pelotazale askoren usteak alaxe diralako. Nik badakit ori beste inori galdetu gabe. Au bere ontan utzi, eta sar gaitezen bertsolariekin:

Leitzan bertsolaria oso ixtimatuak izan dira beti; eta oraintxe ere Leitzako jendeak bertsoak naiko ditu.

Badatoz Leitzako jai nagusiak, erri osoaren pozgarri, beraz etorri ditezela pake ederrean leitzatarren onerako.

Eta besterik gabe, agur guztioi eta Santiburtzio feztak, ongi pasa.


2008a, Leitzeko iñauterietako atsaureak itzuli ziren urtea

Iazko Plazaola aldizkarian aurreratu genuen bezala, 2008ko iñauterietarako garai bateko atsaureak berreskuratzeko proposamena egin genuen, eta leitzarren erantzuna bikaina izan zen. Iñauterietako astearte arratsalderako zitzuten ginen plazan eta atsaure mordoak bildu zen eta baita haiek ikustera joandako dozenaka lagun ere. Hura argazki-kamara pila! Miss Unibertsok berak ez du halako argazki pila jaso izanen oraindik! Eguraldi ezinobea atera zuen eta herriko txistularien laguntzarekin giro ederrean joan zen dena. 35etik gora sonbrero dotore ikus zitezkeen eta baita estilo zaharreko bestelako atsaure batzuk ere. Ikusgarria izan zen, zalantzarik gabe, eta aitzakiren bat bilatzekotan, ez garai batean bezain bizia. Ixor-meta adiñako sonbreroa jantzita, ez da erraza nahi bezala ibiltzea, noski, baina nabaria zen atera gabe pasatako urteen ondoren atsaureak motelxeago zebiltzala. Ez kezkatu, datozen urteetan bizitasun hori ere itzuliko da eta!

Etorkizunean garai bateko atsaureen kalejirarekin jarraitzeko asmoa dago. Momentuz, deialdia iñauterietako astearterako mantenduko dela dirudi, baina beste egun baterako edo gehiagotarako aukera ez da baztertzen. Helburuei dagokienez, berriz, garrantzitsuena garai bateko atsaureak urtero iñauterietan beren tartetxo izatea da. Jakina, behin atsaureak prestatuta gerta liteke programako deialditik kanpo jendea beste momentu batzutan jantzita kalera ateratzea. Oso ongi! Horrek garai bateko atsaureez gozatzeko aukera gehiago emango du, dena dela, koadrilan atera nahi dutenentzat urtero deialdi bat egiten saiatuko gara.

Datorren urterako asmoen artean, berriz ere sonbreroen tailerra antolatzeko asmoa dago, eta baita garai batean ikusten ziren milla modutako zarpaz jantzitako mozorroak bultzatzeko ere. Honela, ahal den neurrian garai batean Leitzan atsauretzeko orduan zegoen irudimena eta aberastasuna berreskuratzen saiatuko gara, molde bakarrera mugatu gabe.

Besterik gabe, milla esker Leitzako Kultur Taldea eta Leitzeko Iñauterizaleen partez egitasmo hau aurrera ateratzen lagundu duzuen guzti-guztiei. Ea herritar guztion laguntzaz gure kultur ondarea eta iñauteriak behar bezala zaintzea lortzen dugun, gure ondorengoentzat opari ederra izanen da eta.



*Leitzeko atsaureak 1930 aldera
(Juan L. Aranburuk utzitakoa)*



*Leitzeko atsaureak 2008an
(Miel M. Elosegik utzitakoa)*

Datozen urteotako iñauterietan elkar ikusiko dugulakoan: Milla esker eta ongi bizi!

Agustin Aranburu

Plazaolako iñauterizale eta bideogillearekin kontu-kontari



2008an Agustin balkoben atsaurea jartzen (Leitzeko Iñauterizaleen Taldea).

Azken hillabeteotan normalean beño gehixeago hitzegin da iñauteritaz Leitza aldean. Iazko Kultur Astean mahai-ingurua eta argazki-erakusketa antolatu ziren, aurtengoan sonbreroen erakusketa, eta bi urteotan adineko jende ugari elkarrizketatu da garai bateko iñauterien inguruan. Zeregin hauetan gabiltzala, Erreka aldeko koadrilla zelebren baten aipamenak jaso ditugu behin eta berriz, eta zalantzarik gabe, jendeak ongi gogoan du pestazale ospetsu haien ibillera. Garai bateko iñauterietan jendea Plazaola eta Errekatarrak noiz azalduko zai egoten zen, giro zoragarria jartzen zuten eta. Altxu aldetik azaltzen omen ziren, irrintzika, oihuka eta poteka, eta herria hankaz gora jartzeko dohai paregabea zuten. Gazte bizkorak ziren. Kattagorri pareko

abiladekin, haletako batek karrapea eta karnizerin arteko baranda airen pasatzen omen zuten ukittu ere egin gabe. Atsauretzeko kapritxo ikaragarria zuten eta jantzi mundialak prestatzen zittuzten. Iñolako zalantzarik gabe, artista haiek gure herriko iñauteritan ahaztuko ez den arrastoa utzi zuten.

Agustin Aranburu Billabona Errekatar haien kastako iñauterizalea da. Lizarragaren harategi aurrean 1930 aldera ateratako argazki historikoan bere aita, osabak eta auzokoak ageri dira, eta berari ere nabari zaio zaletasun hau odolean eramaten dula. Kontu zahar hauetaz, eta Agustinek esku artean darabilzkin hamaika saltsataz hitzegiteko Aurrera elkartean zitatut ginen.

Kaxo, Agustin. Nik beti "Plazaola" bezala ezagutu zattot. Han iaioa zara, ezta?

Hala da, bai. 1945n jaio nintzen, Plazaolako etxen, lehenago karburo fabrika izandako eraikiñen. Gaur tellatue erorie dauken trenbide ondoko etxe luze hue da. Gure attuna jatorriz Zaldibikoa zen, Zulota baserrikoa, eta horregatik esan izan digute betidanik "Zuletatarrak". Attuna, Leitzarango trenbideko tunelak irekitzen arittu zen lanean. Ameraun aldetik gora hasi ziren, eta zenbait urteen ondoren Plazaolara iritsi ziren. Attuna hantxe gelditu zen bizitzen eta bertan hazi zun familie. Gure atte 1914-15 aldera jaio zen eta hamasei bat urtekin hasi zen zentralero, osabekin batera.

Ba al dakizu nondik nora hasi ote ziren atsauretzen? Attuna hasi al zen?

Auskalo! Attuna ni jaio beño hiru bat urte lehenago hil zen. Dena dela, ez dut uste hura hasi zenik. Attek eta osabek nonbatte ikusi izanen zuten tipo hortako sonbreroren bat, eta haiek ere antzekoa edo polittegoa ittea pentsatu izanen zuten. Zentralean ordu asko pasa behar izaten zituzten makinari begira, eta bistan denez, lasai zeuden denbora iñauteriak prestatzeko aprobetxatzen zuten. Materiala hemendik eta handik lortzen zuten. Alanbre nahikoa izaten zuten, zentral batetik bestera zin telefono kableena. Eta papera berriz, Lizartza aldeko papeleran batetik lortzen zuten, nahi aña eta nahi aña koloretakoa. Hauek gainera, diru pixka bat kontseitzeko earki moldatzen ziren. Zentralean aritzeaz gain, kordelak jarrita amorrai asko harrapatzen zuten errekan. Eltzekondo zenari, (Hernani aldeko borrokalariari) ikasi zioan kordelak jartzen. Behorren zurdek bihurrituta egiten zuten bi metroko lokarri moduko bat, harrizkor bat lotu eta amu haundi batzuk jarrita, amorrai asko harrapatzen zuten. Gero treneko langileekin bidalita batera eta bestera saltzen zituzten eta horrekin sos batzuk ateratzen zituzten, papera erosteko eta parrandarako earki etortzen zitazkioanak.

Eta nola jazten ziren?

Jantzie ikusgarrie izaten zen. Zapela, luze-luzea, alanbrez egitten zuten, koloretako paperez estali, eta putre eta ollar-lumekin apaindu. Arpegie oihalez estaltzen zuten, gorputzean bata, oñetako zurik, gorputze arto-txuikiñez betea, eta eskutan guantek eta maskurie eramatten zuten.

Umore oneko jendea izanen zen, ezta?

Bai, bai, hauek pestazale amorratuk ziren. Gure attek musike bate etzekin, beño txotixe ongi jotzen zun, eta panderoa ere bai. Panderoa hartuta keñuka eta poteka hasten zenean zelebrea izaten omen zen. Anaiek ere pestazalek ziren, eta Olaso, Mustar, Joanaborda, Urtotxiki, Franki, Ibiur, eta auzokoekin elkartuta koadrilla mundiala osatzen zuten. Hauek ziren Errekako Banda famatue osatu zutenak, pentsa! Iñauteritan ta pestetan giro espeziala sortzen zuten. Frankiko Manuelen anai zaharretako batek kordiona jotzen zun, beño pieza bakarra omen zekin, ta ordutan ibiltzen zen pieza bakar hori joaz. Repertorioa ez zuten luzea, beño halare, pesta ikaragarrie jartzen zuten.

Gogoan al duzu iñauterietako umetako konturik?

Akordatzen naiz gure etxera eskean allatzen zirela. Saskikin etortzen ziren, belar-tarten arraultzek bildu, ardo-tragoren bat egin, eta Plazaolako kantuan hamaiketakoa egiten zuten. Orduan etzen gaur bezela jaten eta bakarren batek, arrautze disimuloan hartu, bi txulo ttiki-ttiki eiñ, eta ttrrrrrrrrutt, gordiñik zurrupatzen zun seittun, pozik bai! Gero, jakiñe, ez allatzen denentzat arrautze bana gosaltzeko, eta ordun komerik! Saskie ibilli zuna, berriz, parrez! Gaurko alden koadrilla ttikie ibiltzen zen esken. Kantuan orde, jende asko biltzen zen, trena ibiltzen bait zen oraindik. Jaio nintzen leihotik metro gutxita pasatzen zen trena, goiz eta atsalden.

(Trena aipatu orduko arpegie aldatu zaio Agustiñi. Bistakoa da gaie gustakoa dula eta beste bost elkarrizketa indare, ez giñukela gai honekin bukatuko).

Goitik behera aixe joaten zen trena, beño behetik gora larri ibiltzen zen. Bai al dakizo ze sistema zun trenak ez irrixtatzeko behetik gora zetorrenean?

Raillek eta gurpillek burnizkoak izanda, maldan gora zentrala beño lehen irrixtatzen hasten zen, eta eziñen ibiltzen zen Plazaolara allatzeko, aldapa dezentea bait! Trena askotan gelditzen zen hor, eta jendea jetxi itten zen behera. Ordun Donositik ekarritako ondarra txapa baten gañen lehortu, ontzi batean jarri eta tubo batean goitik behera botatzen zuten raillen gañera. Hondar harekin errexago igotzen ziren. Trena aurrera hasten bazen berriz igotzen zen jendea. Nik zortzi urte nitula gelditu zen trena, 53ean, beño oaindik ikusten ai naiz hori dena! Azkeneko urtetan konpetentzie atera zetzion kamionakin. Haik gasogenokin ibiltzen zien, bueno guk "mantsogeno" esaten geñioan, beño laister trena gelditu eta besteek seittu zuten.

Zerorre ibilli al ziñen iñauteritako eskean?

Bai, bai, hamar bat urtez edo. Azkenekoz 1973-74 aldera ibilliko nitzen. Giro earra izaten giñun. Gaur ez bezela, ordun neskarik ez zen ateratzen, mutillek bakarra, eta iñor ez zen atsauretzen. Kuadrillek partitu, bakoitzek gure buelta eman, eta Garagartzan biltzen giñen gero estaziora elkarrekin jesteko. Nere iñauterietako azken urtean egin nun aurreneko filmazioa bideo-kamararekin.

Ordurako bai al ziñun bideoa, Agustin?

Bai, 1972an ekarri nun superotxoko kamara. Etzen halare Leitzeako aurrenekoa izan, Joseluis Pakonak aurretik ba omen zun holako bat. Traste harekin hasi nintzen ni, herriko gauzek hartzen, iñauterik... eta aizkolarik, batez ere aizkolarik, afizio haundie bait nun hortako! Astibian martxa bertatik segitu nun. Bere entrenamentuk hartu nittun, apustuk, txapelketak... harrijasotzallek ere bai. Geroztik beti aritu naiz filmatzen, urtero zerbatte hartu izan dot. 1995 aldera beste kamara berrie ekarri nun, eta orain digitala ekarri dot. Bueno, gero nere filmazioek beste batzuntzat

balio izan due, bai. Espelosiñek Latasari buruzko bideoa egin zunen, iñon ere ez omen zittun Latasan irudik billatzen eta nere bideotan azaldu ziren batzuk. Tolosako zezen-plazan, Azpeitin, San Fermiñetan, beste aizkolari batzuei erakusten, zazpi lekuten azaldu zen Latasa nere filmaziotan, hara!

Aurten ere atera duzu iñauteriei buruzko lan berexi askoa

Bai, hiru bat orduko pelikula atera dot. Hasi 1974n eta gaur arteko gauze pille bat bildu dot DVD baten. Esken dabilten koadrillek, txistularik, atsaurek, baserritarrak, musikeroak, entrebistek, sonreroak nola egin, denetatik azaltzen da lan hortan.

(Agustiñ ez da maixue teknologian, beño saiatu amorratue bai, eta oso gauze interesgarrik bildu ditto bere DVD hortan. Zenbat aurpegi, eta iñauteritako zenbat une berezi ageri diren! Dudik gabe, lan hori eskertuko du jendek, eta zer esanik ez, gerokoek).


Zerorre ateratzen al ziñen gaztetan atsauretue?

Ez, ez, nere gazte-denboran ez zen ia atsaureik ikusten. Oraiñ ordea, hortantxe nabil, eta gustora gañea. Gure atten da koadrillan argazkie pestetako Plazaolan ikusi nunen, eta jendek kontatzen zizkien historiak aittute, berotu, ta orduntxe hasi nitzen atsaurek prestatzen. Neonek ez nun behiñ ere sonreroik egin, beño lehengusuk zapel haundi haitako baten armazobea aurkittu zun Plazaola baserriko ganbaran. Seguruenik sonrero osoa gorde izanen zuten ganbaran, beño xaguk janda edo papera deseginda, auskalo, alanbrek bakarra iraun zuten. Hura ikusi eta hasi nitzen lanen. 2007ko pestetarako 9 zapel intxek nittun. Etxea trastez bete-betea nun. Zapel bat mahaien, bestea armarioan, bestea oben gañen, bi lurren, alanbre-sarek, koloretako paperak, kola, zintzarrik, oihalak... denak aurren hartute andrek etxetik bialtzeko ere larri nitzen! Material dexente behar baito! Bata (tunika) eitteko hiru



Leitzeko gazte koadrilla 1971ko iñauteritan (Mugicaren argazkia).

Goien ezkerretik hasita, Joxe Sagastibeltza, Garagartzako Joxe, Joakin Bengoetxea (azpikoa) eta Jose Luis García (gañekoa), Hilario Garagartzakoa, Joxakin Boxikana, Miel Mindegia aizkolarie, Maietako Juan Fermin, Juan Mari Iparragirre, Martin Mari Astibia, eta eskuñetara apartexeo Antonio Sagastibeltza. Erdiko lerroan Etxebe Pelukeroa, Batixte Urkiola, Joxe Zabaleta alguazille, Joanito Koartabordakoa, Txomin Altzatekoa, bonboa jotzen Txubitanekoa, eta atzen erdi gordean Agustin Aranburu. Behean ezkerretik Miel Sagastibeltza, Jesus Peustenekoa, besoa altxata Juantorena, Jesus M. Iparragirre eta Garagartzako Luxiano.



2007an atsaureen zapelak prestatzen (Leitzeko Iñauterizaleen Taldea).

metro tela behar die, (bueno, hik gexeo!) Papera berriz, asko. Zapel bat ittea 8-10 bat ordu kostatzen zait, gutxienez. Datorren urterako arinxegoak ein nahi dított, beste alanbre-sare bat erabilliz. Nere aurtengo zapelek kilo t´erditik gora pixatzen izanen due, beño burun ibiltzeko, karga da hori, zea!

Zurea al zen udalatzeko balkoben jarri zutena?
 Bai, bai, nik ein nun hori. Udaletxekoei okurrirtu zetzioan ta ni, pozik. Gero pentsatu nun, udaletxen jarri baldin badu, etxen e beste bat jarri beharkou ba! Ta hantxe, soka batzukin seguratu eta balkoben jarri nun nerea ere.

Eta hor al ziñen aurtengo kalejiran?

Agustiñek parra itten do beño erantzun ez. Txori batek esan zigunez, Agustiñek ollagor ehizen txurmioa bihurrittu zun, eta kalejiran ateratzeko larri ibilli omen zen. Dena dela, bere urgunek diximulatu eta hantxe ibilli omen zen atsauretute Plazaolatar fiñenen modure. Okerrik ez bada, datozen urteotan hutsik egin gabe ikusi ahal izanen die atsaureak gure kaleetan barrena. Eta, jakiñe, Agustin bera eta bere bideo-kamara ez dira oso aparte ibilliko. Dudik ez izan!

Egillea: Bordaxarko Matilde

Axular

Pedro Daguere Azpilicueta Jauna, aintza zuri. Etengabeko aaltsutasuna eta bejoindaimena eman zuregana nator.

1556. urteko apirilaren 8an Urdax-Urdazubi errian, axular bordan, izen deituraz ezaguna zen eta den teiatupean sortu ziren eta 1644. urtean, 88 urteren zamapean Sara 'ko errian il ziren.

Urdazubi, Naparroan iparralderuntz eta Frantzian Lapurdiko lurraldeetan parekatzen den lekuan kokatuta dago.

Aintza, aintza eta oore guztiz altsua zor dizuegu zuri guk, "Gero" idaztia (liburua), altsua, miresgarria, idatzi, izkribitu zenuenez geroztik, gu euskaldunentzako zu ilkorra egiz bait zaitugu.

Nik irakurri dedan liburu batean, au jartzen du: 1643. urtean doai guztizko argia ikusi omen zuen liburu onek. Jakitunen iritziz, "Gero" liburua, euskerak argia ikusi duen idaztirik ederrenetakoa omen da. Jakintsu auen artean, ona emen batzuen izenak: Resurrección María de Azcue, Julio de Urquijo, Luis Michelena...

Leenengoz inprimitu zen liburuari "Edición Príncipe" izena eman zitzaion.

Guk emen, gipuzkera-nafarkera erabiltzen degu eta egia esan bear badet, "Gero" ren irakurketa orrela ulertzeko zail xamar arkitzen zaigu, baiña ez beti. Axularrek, liburuan erabiltzen duen euskera, Lapurdiko euskalkia zaarra da, ederra eta bikaiña benetan eta irakurleari, makurtuarazi, murgilduarazi, alegia egiñarazten dio. Niri beintzat ori gertatu zait.

Irakurle, esan bear dizut, nik irakurri dedan liburua, "Edición Príncipe" delakoa izan dala, Laburdiko euskera peto petoa dena.

Baiñan orain arte esandakoa ez da naikoa noski. Liburuaren sorkuntza non izan zen ere esan bear dizuet, Frantzian alegia, Burdeos 'ko irian, eta garai artan, Ego Euskalerrian ez zegoen oraindik euskeraz inprimatzen zuen etxerik eta "G. Milanges" zeritzen zen lantokian lortu ahal izan zuten jator, jatorki argitaratzea. "G. Milanges"

etxea, Frantziako erregearen baitan zegoena omen zen

Aurrera joan baiño leen aztertu ditzadan euskeraz idatzitako liburu zaarrenetakoen izenburuak Zaarrenetakoa "Lengua de Vasorum Primitive" dela esan dezaket, olerkiz osatutako liburua eta diotenez, 1545. urtean argia ikusi zuen Burdeosko irian, egilea B. Dechepare. Testamentu Berriaren itzulpena 1571. nean egin zen eta egilea Joanez Leizarraga izan zen, au erreligioz protestantea eta liburuan ederki azaltzen du bere pentsaera. Eldu naiz berriro Axularrengan, aintzat eta aintzazko gora sarreak eta limurkeriak, euskararen baitan azaltzen bait zuen maitasuna, oparo oparoan eltzen zitzaizkion guzti guztiak XVII gizaldian bete betean.

Batipat garai artan Laburdiko eremuan izan zuen gure euskerak indarririk sutsuena, bizkorkiena dakigunez. Munduaren zear zearka, udaberrian barrutietan eta baratzetan loreak eta landareak azaltzen duen beraien bizi naia eta indartu naiaren kemena eta delako uztabea, ba orrelaxeko indarra izan omen zuen Axularren liburuan euskerak. Bexanabar eta Zuberoan zer edo zer gutxiago. Emen gure Nafarroan, Gipuzkuan eta Bizkaian XVIII gizaldi erditik XX gizaldirañeko zerbait zerbait indartu zen baiñan oparotasun aundirik gabe.

Axularrek, eskolako leen ikasketak non egin zituen ez da azaltzen, nik behintzat, aalegiñak eginda ere, ez det jakindu, sinestekoa da, latinez irakasten zen lekuren bat izanen zela. Jakiña da latinez ikasiz gero, eta izkuntza au naiz onik menderatu ez izan, unibertsitate batera joan omen zela eta unibertsitate au Salamancakoa izan zela. Aldi artan Salamancako unibertsitatea, European zeudenetakoa eta oberenetakoa zela azaltzen dute liburuak, ospe eta izarrez jositako eskola omen zen. Eskola onetan, batxillergo lizentziatura lortu zuen. Salamancan, bere "irakasle" nagusia Zumel Praide merzedetarra

izan omen zen, urte aietan katedratiko sonatuenetako bat.

Emendik, eskola aundiren jabe eta nagusi atera zen gure Urdazubitarra. ¡¡Aleluya!! ¡¡Aleluya!! Badakigu baita ere 1596. urtean diakono lizentziatura Leridako seminarioan lortu zuela. Urte berean, Tarbes´ko seminarioan apezazaterra iritxi zen.

Baita ere Iruñeko apezgintzarako etxean baja artu eta San Juan de Luz´ko elizan alta artu zuela; geroaxegoan Sara´ko elizan apezkakoa lortu zuen arte.

San Juan de Luz´ko eliz barrutian apezgintzazko 5 urteko saioa izan zuen. Emen apezgintzazko jakintzak areagotu omen zituen, Baigorri´ko semea zen Beltran de Echauskinerekin; gizaseme au, Baionan gotzai bezala aritu zen 1598tik 1618 arte eta Turs´en artzapezpiko bezala 1618-1641arteraino. Eta baigorritar au izan omen zen gure Axularri, bere egin aundiko bearretan lagundu zionak. Gotzai au eta Axular adin berekoak omen ziren.

Axular, Sara´ko abadea izan zen eriotza etorri zitzaion arteraino eta bere iloba bat izan omen zen Sara´ko abadetzazko lanak bete zittuenak; ilobak eta Axularrek izen eta abizenak berdiñak zituzten. Osaba eta iloba, illobi berdinean illobiratuak omen daude, 1644 urtean osaba eta 1653. nean iloba.

Urte bete il aurretik, esan bear det, argira atera zela gogoangarri eta guztiz aaztu eziña izan den "Gero" liburua, 1643. nean leen aipatu dedan bezala. Urte aietan euskarazko lanak ez ziren inprimitzen gure inguruetan. Orregatik aldiartan euskeraz argitaratu bearreko lanak, Burdeos´ko irian egiten ziren.

1665. nean, liburuak inprimitzeari asiera eman omen zien Baionan, nik dakidanez, orduz geroztik Baiona´ko argitaratze etxeek gure euskerari maitetasuna, zilegitasuna nola ez ba, azaldu die. Nik esan bear det, nere etxean aurkitu dittudan

zenbait irakurgaietatik, ikasi dedala nola Axular eta eskolaren jabe ziren beste zenbaitek, beraiek bere artean egiten zittuzten billeretan, solasean aritzen zirela eta ari arian Axular apezaz idazten atera bultzatu zutela. Onik zegokion erligioan eta gai sakona izan zitekeen liburuari asiera ematera animatu zuten.

Eta egia da, liburua idatzita egonik eta gerokoa ikusita, au da liburuaren aunditasuna eta erligioaren gaiak oparotasunaren argitik ikustea. Au jakinik, lagun guztiak beste argitaratze berri bat azaltzera ausartu omen ziren. Argitaratze berri au- "Geroko Gero" izenean kaleratu zen. Baiñan liburu berri onek ez zuen izan ospe haundirik, zuzentze batzuk eta utsune batzuk bai bete sitúen baiñan gorasarre eta limurkerik ez. Inprimitzaile-etxea bera izan zen, baiña beste ezer egokirik ez zuen argitaratu.

Irugarrengo argitaratzea, 1864. urtean egin zen, Inchauspe Calongerren ardurapean, zenbait gai ongi tolestaturakoak bai baiñan batz bestez ezer apaigarririk ez omen zuen izan liburu onek ere. "Gero"ren laugarrenen azaltzea 1954. nean izan zen: Euskaltzaindia eta Don Manuel Lecuona apezaren babesean eta ardurapean. Argitaratze onek, euskaldun irakurleenganako eta batez ere, Pirineoren onuntzeko euskaldunentzako, ziñezko zilegitasunezko argi berezi bat, izan zuen alegia. Bere garaian, etxe askotara edatu izanen zela dudikan ez det, nere sort etxera beintzat ez zen eldu.

Leitzeko liburutegitik, emendik jasotako liburu batetik edo bietatik artu dittut zu irakurtzen ari zeran oarrak. Eta gaurkoz eta oraingoan luma alboan utzirik, bizkor bizkorrean segi ezazute eta nik gauza bera egingo det, Jainkoaren laguntasuna dedala, noski.

San Tiburtzio aundiaren pestak, onik igaro itzazue. Nik ere gauza bera egingo dedala uste ustean naiz.

Mikone´ko Demetrio´k

Ateraldik eta ixtorik

Lañoa bada, bai

Lehenago etxerik gehienetan hiltzen zen pesta bezperan harakaie. Hala pesta guzitarako haragie seguru zen etxen. Goizetan tripotxaz ase eta bazkaltzeko eta apaltzeko nahiko haragie etxekoentzat eta kanpotik zetozen pestarleentzat. Etxe hartan ere ez zuten izan nahi bestek baño gutxiago eta hasi ziren kezkatzen.

Andrek: "Harakaie hil behar al dugu aurten?"
Gizonak: "Lañoa bada, bai"

Aleye menditan lañoa bazen iñork ez zuela ekusiko eta besteren artaldetik ekarriko zuela ardie.

Aztie

Astoa estartaz estarta ibiltzen zen eta egun baten labanatu etorri zen etxera. Handik egun gutxi hil zen asto gaxoa. Oxepari pena haundie eman zion astoa hiltzeak.

Hurrengo egunean Oxepa yoan zen Tolosara aztingana eta aztik asmatu zion zeinek labanatu zuen astoa.

Kandelabiurritue

Gabetan belarra ebaki besteren belatsoan eta bere etxera eramaten zuen batek. Belatsoaren yabek kandelabiurritue yarri zuen Santakutzen eta belar lapurre erori omen zen.

Burroa

Zerrie hildako egunen eskazalea etorri zen eta urdai puske bar eman zioten baño alporja hark gibela nahi eta ez eman. Eskazaleak burroa egin eta etxe hartan sartu zen adiur txarra. Behie lanparobekin hil zitioan, zekorra txatarrakin, ardi asko kolaxtuta hil ziren eta zakurre mormoakin.

Giza indarra

Gaur gaztain erre yatea diu gure etxen. Herritik zortzi neska etortzekoak dittok. Eta giza indarra 're beharko diu eta hire hator hire lagunekin.

Barrabletatik atera ez dena

Miel arrantxeroa eta herri bateko ostatuko neska, Joanita, ongi konpontzen ziren. Basora zila Miel

sartu zen ostatu hartan baño Joanita ez zegoe han. Mielek sei arrultze erosi zituen basorak eta galtzan poltsa baten hiru arrultze eta beste beste hiru sartu zituen.

Habitu zen Miel mendie gora eta non topo egite do bere gustoko neska horrekin. Joanita bere itsatsi zitzion eta Mielek ere ez zuen atzera egi. Eta zerdata estualdin bi poltsetako arrultze hautsi eta zirrin hasi.

Mielek: "Barrabletatik atera ez dena poltsetati atera da."

Giza indarra

Gaur gaztain erre yatea diu gure etxen. Herritik zortzi neska etortzekoak dittok. Eta giza indarra 're beharko diu eta hire hator hire lagunekin.

Moroan letrak bezala

Teilatua berritu dute etxe batean. Teilatu lanetar aritzen den batek begiratuta hala dio:

"Beide zaiok hegatz horri, ze langittea in duen Dena koskaka utzi die, moroan letrak bezala!"

Sartuetxea

Lehenago bordetara ez zen kamiorik eta estartetan lohi izugarrik izaten ziren. Behilarruz egindako abarkekin edo ahal zen bezelako oinetakoekin etortzen ziren herrire eta ahaide edo lagun baten etxen aldatzen zituzten oinetakoak, gero mezetara edo dendarayoateko. Etxe honi deitzen zitzion sartuetxea. Bordari gehienek bazuten herrin sartuetxea:

Erasotear askok Errekaldenen, Tutenekoak Iriarten, Apeztegikoak Eztabeneko herrin, Indianobordakoak Aliñeko herrin...

(Barungo Hilariok eman dazkit berri hauek, 2008-6-24).

Konpesatu nahigo behien azpik atera baño

Bazen gizon bat zerrie baño gorotzagoa eta "Barea" deitzen zioten. Beste bat berriz langile amorratue, Joxemartin "Iruztzun", Errementaneko Miel Anttonioren morroie.

"Iruztzun" hau relijio kontuetan hotz samarra zen eta garai hartako giro itxi eta hipokritan nabari gelditzen zen.

Pazkoazkoa egiteko garaie etorri zen eta

etxekandrek bialdu nahi zuen elizera eta zirikatzeke esan zion:

Etxekandrek: "Gaur ekusi dot "Barea" konpesatzen."

Irurtzunek: "Hark nahigo do bai konpesatzea yoan behien azpik ateratzea baño."

Joxemartin "Irurtzun" hau arteosoa omen zen eta etxe askotarako egiten omen zituen kurtedeak. Behilarrue beratuta egiten omen zituen. (Barungo Hilariok kontatue,2008-6-24)

Astibia goldegilea

Alorrean lanean aritzen ginenen goldearen letrei begira egoten ginen."HIJOS DE FRANCISCO AS-TIBIA" yartzen zuten. "Leitzeko kastak dire horik" esaten ziguen etxekoak.

Erramon Benitonak esan dit bere attunan anaia zela goldegile hori. Urtero Santiburtzio egunen etortzen omen zen Leitzera goizeko trenen. Pesta ekusi, Laxaronbordan bazkaldu eta iluntzeko trenen itzultzen omen zen berriz Iruñera. Goldea erosi nahi zutenak egun hori aprobetxatzen omen zuten harekin hitz egiteko.

Sutegi txiki batekin hasi omen zen Iruñeko Sanjuan auzoan. Eta pixkaka pixkaka enpresa haundi bat egin zuen. Erreminta eta makinari asko egiten zituen. Gero Iruñeko Milagrosa aldera eraman zuten lantegi hori. Eta orain Berriobeiti inguruan dago ELECTROACEROS izenarekin.

Zerri emea kastillerrin

Leitzarrak eta Goizuetarrak harreman asko izandu dute beti. Goizuetatarrak ahariak eramaten zituzten Leitzetik ardiri botatzeko eta Leitzarrak ere bai ekarri Goizuetatik.

Santiburtzioatan Goizuetar asko etortzen zen mendiz Leitzera pestara eta Leitzarrak hara yoaten ziren amabirjiñetan.

Goizuetako etxe bateko ama-alabak etortzen ziren Leitzeko etxe batera urtero pestara. Yan eta edan enpo egin eta umore ederrean botatzen zituzten pestak. Yoatekoan gonbidapena egiten zioten etxe hortakoei Goizuetako pestetara. Baño ez ziren behin ere yoaten.

Behin ez dena behin izaten omen da ordea. Eta urte batean yoatea erabaki zuten.Hala, mendiz yoan ziren. Goizuetako etxe hartan ama ate-leakumetik begira zegoen. Leitzarrak ekusi

zituenean sartu zen sekuleko furin barrena. Eta oihuka hasi zitzion sukaldean koziñean ari zen alabari. "Yoan behar omenun, yoan behar omenun, seizan oaiñ".

Alabak: Zer da ama, zer da?

Amak: Cerda? Zerri emea kastillerrin!

Agindu bai baina eman ez

Sei alaba zituen gizona zurrutero samarra zen. Muturre berotute tabernan ari zen oihuka:

- "Yokatuko nikek sei alaba larrugorritan yarri Arremian eta zeinek atera ederragoak. Eta hori bakarrik ez, dotek ere ederrak bazetie."


Sei alaba horitako bat ezkondu zuen eta han zegoen subie ere tabernan. Ez zion onik egin dote kontu horrek eta esan zion:

- "Dotea agindu bai baina eman ez."

Attegiarreba eta subie hasi ziren mutur yoka eta han omen ziren komedik haiek bereizten.


Bizkorrak

Inazio Alparoren attek Goizuetako zurginari eraginarazi zizkion gurdi-perrillek.Zurginek bi perrillek ardatzen sartu eta yarri zituen.Inazioren atte eta osaba, bi anayek, yoan ziren eske. Eta bin arten bizkarrez ekarri zituzten gurdi perrillek Goizuetatik Leitzera.Garai hartan ez zen Leitzetik Goizuetara kamiorik eta mendiz ekarri zituzten. Kastatik kondea da esanera eta ekusten dugunez ondorekoak ere bizkor askik atera dire. Ekustea besterik ez dago Perurenatar atte- semeak ze harrizarrak yasotzen dituzten.



Iberoko olaren historia laburra


Goizuetako herritik bertago dago Leitzetik baino. Bertan daukagu Ibero. XVI. mendeko idatzietan "de tiempo inmemorial" modura agertzen dena, "Iberoko ola", paper zaharretan. Erdi arotik gaur eguneraino iraun duten eraikinak ditugu hauek: Iberoko eta Urdinolako olak eta torrea.



XIX. mendea arte garrantzi handiko jarduera zen burdinaren ingurukoa, Euskal Herri guztian, Bizkaia aldean labe garaiak eraiki ziren arte horrelako oletan lantzen baitzen burdina. Bertan bizi ziren jauntxoak, pentsa dezakegunez, ez ziren edozein izanen herri mailan. Urumeako eta Urdinolako urak erabiltzeko eskubideak zituzten eta baita inguruko mendietan ikatza egiteko ere, azken honetarako 426 hektareako eremua zutelarik. Ez da makala neurrie! Iberoko ingurua, Ollin, Sarobetxiki, Gaztainerretxabal, Urdinola, Itzaide... Urtero 1900 ikatz-karga egiten omen zituzten oletarako, noski, bertan erabiltzeko baldintzarekin... Ikazkinek izanen zuten lana garai haietan! Ez ziren mendiak orain bezalakoak izanen alajaina! Mendi hauenguztien eskubideak bi baldintza zituzten: bata, aipatutakoa, alegia, ikatza bertako oletan erabili behar zela; eta bestea, berriz, 16 urte baino gehiagotan ezin zela oletako lana geldituta egon, horrela gertatzen bazen eskubide guztiak galtzen zituzten.

Honatx, 1894ko otsailean nola azaltzen zaigun Ibero paper zaharretan:

"La ferreria denominada Ibero consta de mayor y menor o martinetes, fragoa y carbonerasitas en jurisdiccion de la villa de Leiza, tiene de area plana novecientos cuarenta y un metros cuadrados, su construccion de piedra con manposteria, cal y canto cubierta de teja, caudal para la introduccion de agua para la maquinaria presa, todo de madera recubierta; para la elaboracion de hierro como son, yunque de la ferreria mayor, dos mazos, una boga, un par de conias grandes, barras y otras herramientas menudas, barquines, yunques del martinete, mazos de idem, bogas y otras herramientas pequeñas, aizaroa, cepos de las hercuas, una ruedas y demas adherentes tocantes a la ferrerias. La casa Torrea, sita en Ibero, tiene de sitio solar catorce metros y ochenta centimetros de fondo que componen doscientos diecinueve metros y cuatro centimetros cuadrados consta de un friso llano y dos suelos, su construccion es de piedra manposteria y esta cubierta de teja ..."



XIX. mende hasieran, olako nagusi modura D^a Maria Francisca Huarte eta D Juan Bautista Minondo ageri dira, 1832 eta 1837an hil zirelarik, oinordeko bi umetxo utziz: Antonio eta Vicente Minondo Huarte. Vicente hau 1853ko apirilak 9an hil zen, olaetxeko nagusi Antonio bakarra geldituz. Hau izan zen Iberon bizitu zen azken nagusia 1865ko abenduak 16an zendu zen arte. Orduetik aurrerantzean kanpoan bizitu ziren ondorengoak.

D^a Maria Goizueta Minondok, D Elias eta D^a Francisca Echenique Minondok hiru zatitan jaso zuten jabegoa. Elias presbiteroa zen eta 1867ko martxoak 6an hil zen, bere arreba Francisca hiru zatitatik birekin geldituz. Desamortizazio Legearen ondoren eman ziren saltsetan erregistratu ziren lur hauek guztiak 1863 aldera: batetik aipatutako Mariak, Eliasek eta Franciscak eta bestetik Leitzeko herriak, ikatzetarako eskubidea lehen esandako baldintzekin onartuz. Azkenean, haiek bertan ez bizitzekin eta olen gainbeherarekin, lan hauek utziz joan ziren eta herria, herri-lur modura erreklamatzeko hasi zen. Urtetan abogadutan ibili ondoren herria jabetu zen hauetaz. Azken nagusi modura fray Antonio Arandia y Osés, Lucas Gamony Goizueta eta D^a Dolores Lafort y Larzabal (Teodoro Gamonen alarguna) azaltzen dira. Irun aldean bizi omen ziren hauek eta garai hartan berreskuratu zituen Leitzak lur-eremu hauek komunaletarako. Ollin, Itzaide, Sarobetxiki, Gaztainerretxabal, Urdiñola; eta Iberoko olaetxea, berriz, elkarte bati lotu zioten garai berean.

Bazen Leitzen 1796ko ekainak 12an sortutako "Sociedad de Socorros Mutuos Contra Incendios" izeneko elkarte, etxeetan eta baserrietan sortzen ziren suteen aurrean babesa emateko. Suteen aurrean Udalak laguntzen zuen gehien, dirua, zura eta teila jarritz, baina nonbait ez zen aski.

Elkarte hau 1892 desegin eta, atzera, berri bat sortu zuten "Sociedad de Seguros Mutuos Contra Incendios de la Villa de Leiza" izeneko. Elkarte berri honetan Udala izan zen sortzaile garrantzitsuena, gehien laguntzen zuena eta bultzazailea, eta ondorioz patronatoa hartu zuena.



Garai honetantxe lotu zen Ibero elkarte honeri, gertatzen ziren suteen aurrean "fonde de reserva" bat bezela izendatuz, alegia, suteek eragindako behar ekonomikoari aurre egiteko iturri modura.

1899. urtean elkarteak olaetxean zerrategia ezarri zuen, aurretik zegoen ur-indar berarekin mugitzen zena: Urumea ibaitik segunduko 2000 litro ur hartzen zituen. XVI. mendea baino askoz lehenagotik olak ur kantitate hori bera erabiltzen zuela-eta, elkartearen izenean Luis Tirapuk, Jose Ramon Zabaletak eta Migel Eizagirrek orduko Nafarroako Gobernadore Zibilar eskubide hori zerrategirako eskatu zioten, 1901. urtean.

Azkenean elkarte hau ere desegin egin zen sute batzuen ondoren eta berri bat sortu berriz ere; oraingoan ere Udalaren parte-hartzea ezinbestekoa izan zen eta horregatik eskaini zioten berriz ere patronatoa eraman zezan eta laguntzaile nagusi modura ageri zaigu behin eta berriz elkarte honetan.

1919ko uztailak 12an Ibero elkarte honek erregistratu zuen eta gaur arte iraun du historiotxo honek ...

Orain elkarte desegiteko prozesuan dago eta Ibero herriarentzat berreskuratzeko aukera ezin hobea emanen delakoan... leitzar guztion onerako.

Festetako gastuen zerrenda 2008ko aurrekontua

PLAZAKO MUSIKA	15.764,00
Perfusion	
Trikidantz	2.200,00
Gaubela	1.350,00
Garraxi	1.972,00
Tximeleta	1.400,00
Esne-beltza	2.200,00
Esne-beltza - ekipoa (Factory)	2.700,00
Intxaurbreak	500,00
Mariatxia	600,00
	2.842,00
KIROLAK	7.445,00
Txirindulari lasterketarako anbulantzia	225,00
Txirindulari lasterketa	1.200,00
Herri kirolak	3.420,00
Pilota partiduak	1.500,00
Euskal Herriko sega txapelketaren finala	1.000,00
Futbol txapelketako finala (sariak)	100,00
UMEENTZAT	4.136,40
Puzgarriak (Keima)	1.786,40
Txontxongiloak	850,00
Goxokiak (Gaztetxo)	300,00
Pirotecnia (Fiesta - Comercial Pirotecnia)	1.200,00
BESTELAKO PROGRAMAZIOA	14.971,20
Incansables Txaranga (Ama-Lur)	7.500,00
Aurrerako Dantzariak	1.000,00
Gaiteroak	400,00
Txistulariak	936,00
Bertso saioa	2.200,00
Bertso saioa + paella lehiaketa (aulkiak)	545,20
Pestetako opariak (paella lehiaketa)	90,00
Iparraldeko dantzariak (Space mukaki)	500,00
Goitibeherak	1.800,00
ZEZENAK	14.684,50
Asegurantzia Soziala	215,50
Mapfre (erantzukizun zibila)	4.507,00
Mapfre (jstripuak eta baliezintasuna)	390,00
Asier Arrizabalaga (behiak)	3.745,00
Mercedes Sagastibelza Arregi (ukuluaren alokairua)	287,00
Pentsua	50,00
Medikua eta erizaina+anbulantzia	4.340,00
Hondarra eta porteak	750,00
Hondarra biltzeko makina	400,00
OTORDUAK ETA OSTATUAK	10.200,00
Jubilatuak bazkaria	1.500,00
Besteak	5.000,00
Herri-afaria	3.700,00
PROGRAMAK ETA PUBLIZITATEA	2.181,64
Programa	1.831,64
Programaren azalaren lehiaketaren saria	150,00
Ttipi-Ttapan iragarkia	100,00
Hitzan iragarkia	100,00
BESTELAKOAK	12.428,87
Kioskoaren garraioa	275,00
Megafonia	700,00
Komunen alokairua (Inoquim)	1.704,47
Argi indarraren konexioa eta gastua	375,00
Kale garbiketa - Garbilan	5.011,20
Kale garbiketa - Desclegues Iru_a	2.923,20
Sociedad General de Autores	1.440,00
GUZTIRA:	81.811,61



Aurrera K.E.
Elbarren 12
Tlf/Fax: 948 - 510 187
Mob: 608 78 92 93
E-maila: aurrerake@hotmail.com
Leitza (Nafarroa)

Aurrerako bazkide hori:

2008ko festak ere iada iritsi zaizkigu, San Tiburtzio festak, eta ongi pasatzeko gonbitea luzatu nahi dizuegu.

Urteroko moduan orri hauek erabili nahi ditugu gure Elkarteko zenbait berri emateko:

- Aurreko urtean azaldu genizkizuen, Aurrerako egoitzaren atzealdean egiteko zeuden asmoak. Bada, asmo horiek egi bihurtzeko bidean daude iada: lurzatia zelaituz otorduak egiteko harrizko bi mahai jarriko dira. Egoitzari erabilera emateko beste arrazoi bat gehiago izango dugu guztiok.

- Nahiko errepikakorra den arren, berriz ere gogorarazi nahi dizuegu, zuetako askok oraindik ez duzuela argazki eta daturik ekarri bazkideen karneta berria egiteko. Oraindik ere garaiz zabilzate eta datuak jasotzen goazen heinean, karnetak egiten jarraituko dugu hemendik.

- AURRERA EGUNA. Iaz hain arrakastatsua eta pozgarria izan zen egun berezi hau, berriro ere ospatu nahi dugu zuekin. Aurten, urriaren 4an izanen da eta iazko zuen parte-hartzea espero dugu aurten ere. Dena dela, informazio gehiago eta egitaraua aurrerago emango dizuegu. Egun honetan, lehengo urtean bezala, falta diren karnetak banatu nahi genituzke.

- Dagoeneko Elkarteko azken zuzendaritza osatu zenetik bi urte igaro dira eta aldatzeko tenorea ere iritsi da. Aldaketa hau egiteko data jarri dugu iada: urriaren 9an izango da. Jendearen parte hartzea espero dugu, orain dela bi urtekoa berriro gerta ez dadin.

- Gehienok ezagutuko duzuen Nafarroako Kutzako proiektuan jende askok parte hartu du aurten ere eta eskerrak eman nahi dizkizuegu hemendik, bertan parte hartu duzuen guztiok.

Aipamen berezia egin nahi diegu, nola ez, Aurrera K.E. osatzen duten komisio guztiok. Urtean zehar antolatu ohi diren ekintzak herriari zuzentzeko asmoarekin eginak izan ohi dira eta hau ez litzateke posible izango zuek guztiok gabe. Beraz, MILA ESKER eta ZORIONAK hemendik!

Eta amaitzeko nola ez, ZUEK (bazkideak) zoriondu nahi zaituztegu; zuen babes eta laguntzarik gabe hau guztia aurrera eramatea ezinezkoa izango bailitzateke. Zuei ere, MILA ESKER eta ZORIONAK!

Festa alaiak igaro eta GORA SAN TIBURTZIO!!!

AURRERA K.E. ko ZUZENDARITZA

Txantxetan?

Leitzako lagun talde bat elkartu da kalean eta bat-tak besteari apustua egin nahian honakoa dio lehenak:

- Ni hi baino pertsona osoagoa nauk, nere printzipioak egunero eta egun osoz betetzen dizkiat: Hipermerkatuan erosi beharrean, herriko bertako edo ondoko denda txikietan egiten dizkiat janari, jantzi nahiz altzari erosketak!

- Ez bada! Neronei nauk pertsona osoena!-dio bigarrenak.- Begira: ezker abertzaleko bozka emalea eta praktikantea nauk, egun guztiz euskeraz hitzegiten diat eta inguruan euskal giroa sortu eta mantentzeko ahaleginetan ez diat indar faltarik sentitzen!

- Urruti zabilzate, ni nauk osoena!-hirugarrenak- Gasoila garestitu aurretik, kotxea ez beste garraio sistemak erabiltzeko bide guztiak jartzen nitian gure ingurua ahalik eta gutxien kutsatu asmoz! Kideak ere animatzea lortu genian eta egunero-ko lanaren emaitzaz, orain kotxeak garajetik oso gutxitan ateratzen dizkiagu, benetan beharrezkoa denean soilik. Eskolara joateko adibidez, ikasle, irakasle, guraso eta bestelako langileek egunero oinez edo bizikletaz joateko erabakia hartu ditek!!

- Bai eta zera ere!! Neronei nauk osoena!: Herriko edozein dendatan baino merkeago erosteko aukera guztiak zeuzkeat eskura: Internet, Hipermerkatuak, eta abar baina, langileekiko duten errespetu exkaxa jakinaz, Leitzan bertan edo Tolosan erosten dizkiat beharrezko guztiak!

- Ni bai pertsona osoa, ni: Duela 30 urtetako prezioetan dabilzala jakinaz eta kalitate hobea ziurtatzea ikaragarri zaila dela kontuan izanik, lurrak eta abereak zaintzeko denborarik ez diagunez, inguruko baserrietan erosten dizkiagu beharrezko lehengaiak, haiei bizitza duinago bat eman bide-nabar!

- Ja, ja, ja! -seigarrenak- Ni enpresarioa nauk eta herritar guztiok eskubide berdinak eduki behar genizkikenaren kontzientzia osoan, inguruko fabrika handiek ere inpostuak besteak bezalaxe ordaintzea erabaki genian. Orain dirutza horrekin gizarte serbitzu gehiago eta hobeak eskeini zit-zakek Leitzeko udalak.

- Baita zera ere! Neronei, neronei!!-zazpigarrenak Multinazionalak oraindik etekin gehiago ateratzen nahian etengabe kutsatzen dutenez, gure mailar aurre egin asmoz, hautsik gabe gure baratzal ematen duena, bertako baserritarrek ekoizten dutena eta janari ekologikoa besterik ez diagu jaten!

- Benobeno, belaunetara ere ez zatzaizkit iristen!!-zortzigarrenak- Leitzeko udalak jarritako zaborrontzietan neronei nauk kolore ezberdin bakoitzar zegokiokena hobe betetzen dikena eta bizilaguna kolore ugaritasunean galdua ikusi orduko laguntzeko prest azaltzen dukena! Inork ez dik paperen ontzi urdinean plastikorik sartzen ez ontzi berdean paperik botatzen.

- Neronei, neronei!! Espekulazio furi furian ingurukoak lurrak saldu eta saldu zebiltzala, nik etorkizun luze eta oparo bati begira gure lur ondarea mantentzea erabaki nian. Orain ikaragarriko baratza eta inbernaderoa dizkiagu bertan eta auzokideak guri erosten zizkigutiek beharrezko baratzkiak. Gainera, lanerako bi lagun behar eta herritar-tarrak hartu dizkiagu.

- Ni bai osoa, ni!-hamargarrenak-Lan egoeraren geldialdiaz kontziente izanik eta gure lantokia martxan jarri zian nagusiak diken arriskuaz jabeturik, lan ordu berdinetan lan kalitatea hobetzeko erabakia hartu eta lankideak bide berdinean jarri dizkiat!

- Neronei nauk dudarik gabe leitzar osoena!

- Hamaikagarrenak-Sasi nekazaria izanik (nere soldata beste lan batetik atera ondoren afizioz nekazaritzara aritzen nauk), Aritz-ko gañe eta Asketa bezalako Letitzeko bazkalekuak benetako baserritar, nekazari eta abeltzainei uzten zizkiet, haien bizimoldea erraztu eta ahalik eta traba gutxien egin asmoz!. Gaztetatik lan horretara saiatu nahi duenari bidea erraztu eta etorkizun oparoagoa eskeintzeko ahalegina egitea erabaki diat. Sasi nekazari eta sasi abeltzain guztiak berdina eginez gero, etorkizun oparoagoa izango lukete gure inguruko belatso eta benetako abeltzainek!

Irakurle: zein eta zergatik da denetan pertsona osoena: leitzar hauek edo zu eta ni?

Ikurriña gurea

Ikurriña, 1977an legeztatu zen arte, Euskal Herri osoan bezalaxe, gure eskualdean ere makina bat elektrizitate-kabletan, mendi kaskotan, zuhaitz eta erloju muturretan jarritako ikurra da: Euskal Herria bazela eta euskalherritarrok baginela adierazteko eta erakusteko modua zen besteak beste; euskal herritartasunaren aldarri eta ikur zen. Eta hala da.

Ustez, 1977 hartan "legezko" bihurtu bazen ere, 30 urte irago dira orduetik eta gaur da eguna gure herrialdeetan, UPN-CDN gobernu espainolista ultrasosialistak, berak asmatutako Ikurren Legea delakoaz baliatuz, ikurriña nafarrantzat ikur arrotz modura sailkatuta duena, euskalduntasunaren eta euskal herritartasunaren zantzurik ttikienaren aurka daraman gurutadaren barrenean.


Azken 30 urte hauetan guztietan ikurriñaren aldeko borroka ez da ttikia izan, herri mugimendua bizia izan da arlo honetan ere: arriskuak arrisku, herritarrek udaletxetako balkobetan eta erlojuetan jarritako ikurriña, Estatuko Segurtasun Indar mota guztiek kendu dute hamaika aldiz; herriaren nahi eta borondate horri eutsiz hainbat udalek, iraunkor jarri zuten ikurriña udaletxetako balkobetan, Leitza kasu; mehatxuak, isunak, salaketak, zitazioak... denetik jasan da urte horietan zehar, bai herritarrok, bai alderdiek eta baita txandako udal abertzaleek ere. Baina hala erabakitako lekuetan, ikurriña dagokion lekuan, herritar guztion ordezkartzaren gunean egon da, udaletxetako balkobetan.

Aldiz 2005 urtean, 1981 urtean onartutako ikurren inguruko erabakia praktikan jartzen du Nafarroako Gobernuak beste dekretu baten bidez. Ondorioz, garai hartan zegoen "alkateak" 10 urtez udaletxeko balkobean eta modu iraunkorrean zegoen ikurriña kentzen du herriari ezer ez galdetu gabe, herritarren artean haserrea sortuz. Geroztik eta 2007 urtera bitarte, hainbat herritarrek ikurriña jartzen zuten egun jakinetan; batetik, Euskal Herriko egunetan eta

bestetik, Espainiak inposatutako egunetan, beti ere aldarrikapen eta salaketa pankarta batek lagunduta. Zoritxarrez, oraingoan ez zuen Guardia Zibilak kentzen, momentuko "alkateak" baizik.

Azken urte honetan, egun puntualetan jarri da ikurriña: herriko festetan, Aberri Egunean, Gudari Egunean, konstituzio egunean etab. Aldi guzi hauetan Guardia Zibilak salaketa jarri du espainiar delegaritzan.

Ikurriñak bere lekua berreskura dezan, ekimen berria abian jarri du Bai Euskal Herriari herri ekimenak. Ikurriña ez da alderdi politikoena soilik, herritar ororena da. Beraz, denoi dagokigu ikurriñari babesa, indarra eta atxikimena ematea. Argi dugu bidea ez dela erraza izanen, baita erasoak segidan etorriko direla ere. Hau honela izanik, indarrak bildu eta prest izan behar dugu honi guziari aurre egiteko, prest zinegotzi nahiz herritarrek intsumisioaren bidea jorratzeko. Indarrak metatu eta denon artean lortuko dugu ikurriñari dagokion tokian jartzea.



**GORA IKURRIÑA! GORA EUSKAL HERRIA!
EUTSI, IRABAZI ARTE!**

Euskal Herria

aldaketa garaia

Urtero bezala hemen gatozkizue berriro ere azken urte honetako gertakari politiko nagusien inguruan gure hausnarketa plazaratuz.

Zinez gogorra izan da azken urte hau Euskal Herriarentzat, eta bereziki ezker abertzalea osatzen duten erakundeentzat, behin eta berriz kupidarik gabe kolpatuak izan baitira.

· Batasunaren mintzakidetza espetxeratu zuten lehendabizi, orain berriro baita ETA erakundearen mintzakidetza ere.

· Batasunaren mahai nazional osoa espetxeratu dute, baita hainbat militante ere.

· 18/98 delako prozesuaren epaia dela-eta, epaia bera jakin aurretik 42 euskal herritar kartzeleratu zituzten, denak nazio eraikuntza eta eraldaketa soziala bultzatu duten militanteak.

· EHAK eta EAE-ANV alderdi politikoak ilegalizatu dituzte; azpimarratzekoa da EAE-ANVren kasua, frankismotik pasatutako alderdia baita, historia luzea duena Euskal Herrian, batez ere frankismoaren aurka egindako borrokarengatik. Honekin batera EHAKen eta EAEn hainbat egoitza itxi zituzten, baita militante batzuk kartzelan sartu ere.

· Une honetan Askatasunaren aurkako epaia ematear dira, aspaldi idatzita dagoen epaia hain zuzen ere.

· Udalbiltza, Egunkaria eta Batasunaren aurkak epaiketak ere hastear dira.

· Urte baten buruan ehundaka euskal herrita atxilotu dituzte, horietatik asko bortizki torturatu dituzte, emakumezkoen zein gizonezkoen bortxaketak barne.

· Gerra zikinaren zantzuak ere ikusi dira, bereziki Gorka Lupiañez eta Igor Portu zein Mattir Sarasolaren kasuetan, inork ez baitaki hainba ordutan non eduki zituzten. Ondoren jakin zer basatiki torturatu zituztela, Mikel Zabaltzarer eta Lasa eta Zabalaren kasuak gogoraraziz.

· Herri askotan ikusi dira polizia, militar eta guardia zibilen okupazioak, herritarren artean beldurra sortuz.

Leitza ere ez da errepresio basati horretatik kanpo gelditu. Behi, esaterako, herria okupatu egin zuten dozenaka lagun identifikatuz; duela gutxi, berriz, Basakabi inguruan gazte bat basoan sartu, biluztuarazi eta galdekatu egin zuten.

Ez genuke aipatu gabe utzi nahi, horretaz guztiaz gain, herrian bertan euskararen aurka heldu dena; izan ere, herritar batek (Antonio Bengoa), UPNren laguntzarekin, udalaren aurkako salaketa sartu du udalak euskaraz funtzionatzen duelako. Honako mezua helarazi nahi diogu: arazoa ez da euskaraz funtzionatzen duen udala, baizik eta bera bizitza osoan Leitza bizi (%90

euskalduna) eta ez duela herrian integratu nahi izan. Euskaraz ikasi eta kitto!!

Azaldutako hori da, beraz, egunero saltzen diguten demokrazia. 30 urte Franco hil zela eta frankismo beltzetik frankismo zurira pasa gara. Honela egiten al da bakea? Edo gatazkak konpondu? Erraturik daude, 30 urtetan lortu ez dutena ez dute orain lortuko.

Hala ere ez pentsa PSOE-PP-UPN bakarrik ari direnik egurra partitzen. Ez, bertako hainbat eragile politiko eta sasi-intelektual buru belarri sartu dira eraso hau babesten, NA-BAI eta EAJ-PNV bereziki. Erabateko babesa eman baitiete behin eta berriz, Madrilgo kongresuan sinatutako agiria kasu.

Askotan lotu da eraso hau guztia espainiar hauteskudeekin; lotura izanda ere, sakoneko arrazoa beste bat da, eta arrazoi hori da Euskal Herria aldaketa garaian murgilduta dagoela, Foru Hobekuntza eta Autonomia estatutuak porrot egin dutela eta ez dutela balio ez Herri hau egituratzeko ezta herri nahiak asetzeko ere. Garaia iritsi da beste marko politiko bat mahai gainean jartzeko. UPN, PSOE, PNV, NA-BAIren nahia litzateke iruzur berri bat egitea; horretarako, iruzurra patxadan gauzatu ahal izateko, ezinbestekoa dute ezker abertzalearekin amaitzea, baita Euskal Herriaren nazio eraikuntza zantzu guztiak ezabatzea.

Hala ere, eraso guztien gaineratik, Ezker Abertzaleak txukun eusten jakin du; erantzun tinkoa eman zuen, esaterako, otsailean antolatutako greba orokorrean: 50.000 pertsonatik gora kalera atera ziren lan egun batean, eta hainbat eta hainbat herritarrek geldialdi masiboak egin zituen. Eta tinko eutsi dio beste egoera eta abagune batzuetan ere.

Espainiar hauteskudeak:

Ezker abertzaleak hasieran aurkezteko apustua egin zuen, baina ilegalizazioaren ondorioz eta

baldintzarik ez zegoelako, abstentziorako deia zabaldu zuen, herri gisa erantzuteko. Balorazio azkar bat eginez, honakoa esan genezake:

- Ezker abertzaleak emaitza oso txukunak atera zituen Leitzan: abstentzioa % 58ra iritsi zen. Abstentzioa Euskal Herrian politikari guztiak nahi zutena baino askoz altuagoa izan zen. Ezker abertzaleak bere oinarri sozialari ongi eutsi zion, baita baldintzarik txarretan lan eginda ere. Aurrera jarraitzeko oinarri sendoak jarri ditu.

- Alderdi espainolisten artean PSOE gailendu zen, PPK gertutik jarraituta.

- IUk, berriz, beherakada galanta jasan zuen.
- Alderdi regionalistek ere beherakada handia izan zuten. PNV, EA, Aralar, denak jaitsi ziren.

- NABAIren kasuan, orain lau urtekoarekin alderatuz eustea lortu bazuten ere, ez zuten lortu Nafarroako azkeneko hauteskudeetan ateratako emaitzei eustea. Zenbait lekutan, gainera, mendialdean batez ere, jaitsi ere egin da.

Ibarretxeren kontsulta:

Nahikoa zer esana eman du, eta azkenean aurrera atera da Gasteizko legebiltzarrean, ezker abertzaleak emandako boto bati esker. Lehenik eta behin argi utzi nahi dugu Ibarretxeren ekimena lotuago dagoela heldu diren hauteskunde autonomikoekin gatazka gainditzeko benetako borondatearekin baino. Zergatik ez dute, bestela, urratsik txikiena ere eman ezker abertzalearekin adostasun batera iristeko? Zergatik esan dute Madrilek atzera botatzen duenean men eginen dutela? Hori bai ez dela batere serioa: herri eskubideak eta gatazka konpontzeko herri nahiarekin politikakerian ibiltzea interes alderdikoeekin. Alde guztietan argi gelditu da berriro ere zein den Euskal Herriaren eskubideak ukatu egiten dituen, Madril, eta zein den behin eta berriz men egiten duena.

Esandakoak esanda, ondorio gisa honakoa esan genezake:

- Estatua krisi sakonean murgilduta dago.
- Euskal Herriak Marko Politiko Berria behar du, lurraldetasunean eta autodeterminazio eskubidean oinarrituko dena.
- Herrian inoiz baino nahi eta behar handiagoa dago gatazka konpontzeko.
- Errepresio eta debeku guztien gaintik ezker abertzaleak eutsi egiten dio.
- Gatazka konpontzeko modu bakarra berdintasunean oinarritutako elkarrizketa eta negoziazioaren bidez etorriko da. Anoetako printzipioak erabat barneratuta daude.

Egoera zail honi aurre egiteko 3 lan esparru nagusi proposatzen ditu ezker abertzaleak:

- Nazio eraikuntzari ekitea. Inoiz baino behar handiagoa dago arloz arlo urratsak emateko, eta herri gisa zutabeak eraikitzen jarraitzeko, baita ere intsumisio jarrerak pizteko; hau da, herri gisa ibiltzen hasteko garaia da.
- Euskal Herriarentzako Marko Demokratikorako proposamenaren inguruan indarrak biltzea. Proposamena, labur bilduta, hau da:

Marko Demokratikorako proposamena:

Ezker abertzaleak formulazio zehatza proposatu du, Euskal Herriko eragileen esku utzi duena. Proposamen erreala, egungo errealitate politiko-instituzionala aintzat hartzen duelako; demokratikoa, proiektu politiko guztiei atea irekitzen dizkiolako; eta nazionala, lurralde osorako balio duelako.

- Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaientzat Autonomia Estatutua, erabakitze eskubidea jasoko duena. Marko berria indarrean sartzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko zein

Nafarroako Foru Komunitateko herritarren atxikimendua ezinbestekoa izango da.

· Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoarentzat Autonomia politikoa, erabakitze eskubidea jasoko duena.

· Euskal Herri osoan euskal herritar oroien eskubide osoak bermatuko dituen nazio instituzioen eratzea.

· Errepresioari erantzuten jarraitzea; badakigu kolpeak etorriko direla, tinkotasunez eta duintasunez erantzuten jarraituko dugu.

Hau guztia bideratzeko ezinbestekoa da jendea auzolanean antolatzea, eta dei berezia egin nahi diogu ezker abertzalearen oinarri sozialari herrian abian diren ekimen desberdinetan antola dadin. Gezurra ematen badu ere, Euskal Herri askea lortzeko aukerak bere horretan jarraitzen du. Laino guztien azpitik, sasi guztien gaintik, lortuko dugu.

Sarriopapel y Celulosa S.A Emakumeon eskubideen urratzaile

Sarriopapel y Celulosa S.A lantegia Leitza eta inguruetakoko famili askoren ekonomiaren oinarri da, edo famili hauetako subjektu konkretu batzuen: aita eta semea. Emakumeak non gaude? Egun, inposaturiko gizarte patriarkalak sexuen arabera lan banaketa du oinarri. Eta Sarriopapel y Celulosa S.A lantegiak sistemak ezarritako eredu hau sostengatzen du. Datu hauek ez al dute argi erakusten?

Eskulanari dagokionez, 38 emakume eta 267 gizonezko daude lantegian, eta emakumeak kontratatu zituzten azkeneko aldia 1976. urtea izan zen. Geroztik, eta emakumeok bertan lan egiteko prest egon arren, ez baitigute aukera eman eta egun ere ez digute ematen.

Udara atarian gauden honetan, urtero legez, lantegiaren lan-eskaera igo egiten da, batez ere eskulanerako. Teorian, hau, sekulako aukera litzateke herriko gazteentzat. Baina zoritxarrez teorian geratzen da. Errealitatea bestelakoa da. Gizonezkoak kontratatuko dituzte, azken 32 urteotan bezala, emakumeok itxaron-zerrendetan jarraitu beharko dugu.

Pertsona ororen eskubidea da lan duin baterako sarbidea gizonezko zein emakumezkoengan aukera berdintasunean ematea. Eta honela dio Sarriopapel y Celulosa S.A enpresaren lan-hitzarmen kolektiboak 32. artikuluan, Berdintasuna eta diskriminaziorik eza izenburupean. Enpresa barruan langileak ezin izango dira diskriminatu ideologia, erlijio, arraza, afiliazio politiko eta sindikal, eta abarreatatik. Enpresako lanpostu guztietarako sarbide berdintasunaren printzipioa errespetatuko da,

nola gizonezkoentzat ala emakumezkoentzat, inolako diskriminaziorik gabe. Lanposturen bat betetzeko deialdiren bat gertatzen denean, sexu egoeraren erabateko abstrakzioa egingo da, eskatutako gaitasun profesionalari besterik ez zaio begiratuko.

Arestian aipaturiko datuek, ordea, sinesgarritasun osoa kentzen diete. Ez dugu ahaztu behar, ETT bitartez kontraturiko langile guztiak ere gizonezkoak direla, uda honetan 22 gizonezko. Neurri eta jokaera hauek herriko eta inguruetakoko emakumeen askatasun ekonomikoa baldintzatu dute urte luzeetan zehar eta egun ere modu berean dihardute. Ezin dugu ahaztu errealitate honek emakumeon alor ekonomikoari eragiteaz gain gure egoera pertsonalean eragin zuzena duela. Gauzak horrela, askatasun ekonomikoa urratua dugun momentutik, askatasun indibiduala ere guztiz mugatua dugu emakume gazte zein helduek.

Urteetan zehar lantegian emakumeon presentziari uko egin dioten arren aurrera jo behar dugu. Herriko zein inguruetakoko emakumeok lantegirako sarbidea eduki dezagun borrokatu behar dugu. Zerrendetan gure izena idatzi eta gure eskubideen alde kalera irteteko garaia da. Egoera honen erantzulea Sarriopapel y Celulosa S.A da, baina egoera hau salatzea denoi dagokigu; herriari! Bazterketari ezetz esateko garaia da! Euskal Herri feminista eraikitze bidean gora emakumeon borroka!!!

Euskal herriak askatasuna behar du!

Azken 30 urteotan espainiar eta frantziar estatuen errepresioaren ondorioz 321 Euskal Herritar hil dira, 4.000 preso politiko baino gehiago egon dira, 35.000 pertsonatik gora izan dira atxilotuak, 7.000tik gora torturatuak, 10 erakunde politiko legez kanporatu dituzte, 4 komunikabide izan dira zentsuratuak.

Salbuespen epaitegi bereziak, fusilamenduak, ZEN plana, hiltzera tiro egitearen politika, tortura basatienak, GAL eta gerra zikina, atxiloteta masiboak, preso en dispersio politika, erakunde politiko en legez kanporatzea, bizi osoko espetxe zigorrak, preso gaixoak espetxean mantentzea... Euskal Herriaren independentziaren aldeko borroka desagerrarazteko denak balio du.

Leitzako Amnistiaren Aldeko Mugimendua urteak daramatza bi Estatu en errepresio politiko eta juridikoa salatzen, Guardia Civil, Policia Nacional, CRS eta Ertzaintzaren gehiegikeriak salatzen ere. Tamalez Leitzako herritarrek gorpu errepresibo hauek ongi ezagutzen ditugu, 5 egunez inkomunikatuak, torturatuak, jipoituak, atxilotuak, kartzeleratuak, dispersatuak, tirokatuak... izan bait dira hainbat leitzar; egun epaiketaren zain daudenak ere. Guardia Civilak urtetan adierazteko eta biltzeko eskubidea urratzen du Leitzan, manifestazioak debekatu eta indarrez sakabanatuz, 100 urtetan Ateka Beltz etxea okupatu ondoren, herritarren zerbitzurako izan behar zuen etxea, Maxurrenea, legea indarrez bereganatua dute. Hau dena

salatzeagatik epaituko dute Amnistiaren Aldeko Mugimendua.

Egoera gordin honen aurrean, euskal herriar aspaldidanik antolatuak gaude. Errepresioa jasaten duten herritarrek elkartasuna eta laguntza jasotzen dute, preso eta iheslari politiko en eskubide en defentsan, amnistiaren alde, torturaren, gerra zikinaren, polizia bortizkeriaren, eta oro har errepresioaren aurkako herri borroka piztu dira azken 30 urteotan.

Lan hori egin dugun milaka herritar, Amnistiaren Aldeko Mugimenduan antolatu gara azken 30 urteotan. Espainiar estatuak Euskal Herria aldi errepresibo berri baten murgildu du en honetan, Amnistiaren Aldeko Mugimendua desagerrarazi nahi du herri honi errepresioa mugarik gabe ezartzeko. Horretara dator Espainiako Auzitegia Nazionalean, Askatasuna eta Amnistiaren Aldeko Batzorde en aurka egin den epaiketa eta sententziaren zain dagoena. Amnistiaren Aldeko Mugimenduko 27 euskal herritar daude epaiketa honetan inputatuta. Babes eta elkartasun osoa adierazten diegu epaitu dituzten pertsoei.

Espainiar justiziaren bidez kriminalizatu nahi dituzten Amnistiaren Aldeko Mugimenduko erakundeok beraien lan politiko eta soziala egiteko zilegitasun osoa dugu. Amnistiaren Aldeko Mugimendua epaitzen duten honetan, Leitzako herritar asko ere epaituak sentitzen dira, mugimendu honetako eragileek

planteatutako hainbat konpromiso bere gain hartu dituzten heinean, Euskal Herriak jasaten duen salbuespen egoera salatu eta borrokatuz, Euskal Presoak eta Iheslarien euskal herriratzearen alde mobilizatuz, Tortura salatuz, Atekabeltz eta Maxurrenea Herriarentzat ekimenetan lanean arituz eta babesa emanaz, atxilotetak salatu eta atxilotuari eta senideei elkartasuna adieraziz.


Aipamen berezia egin nahi dugu gaur. Hileko azken ostiraletan Euskal Preso eta Iheslarien eskubideen aldeko kontzentrazioetan, eta Amnistiaren aldeko mugimenduak deitzen dituen ekimenetan parte hartzen duten herritarrei. Neke eta eguneroko zurrumbilo indibidualistarekin hautsiz salaketa eta elkartasuna adierazteko tarte hartzen duzuenoi. Ez baita nahikoa injustizia eta errepresioa jasaten dutenekin gertutasun eta sentibera izatea, honek ez du egoera irauliko, errepresioa eta jazarpena, kalean, lantokian, ikastetxean, etxean...salatu behar ditugu, ezin dugu etxean geratu.

Euskal Herritarron aurka jarduteko espresuki sortua den Audientzia Nazionalaren desagerpena exijitzen dugu. Gerra egitera etorri diren indar polizialak Leitza eta Euskal Herritik kanporatzea eskatzen dugu.

Gogor salatu nahi dugu elkartasuna eta kritika politikoa zigortzeko saiakera berri hau. Amnistiaren Aldeko Mugimendua testigu

deserosoa da estatuarentzat eta hori da aurretik kendu nahi dutena.

Baina bai epaiketan, bai kalean argi gelditu da errepresioak ez duela errepresioaren salaketa geldituko. Herri honetan jazartua denak beti izango du elkartasuna eta babesa. Gatazka politikoak ez dira espetxeekin konpontzen. Zentzu honetan azken preso edo iheslari politikoa etxean eta eskubide guztien jabe izan arte lanean jarraituko dugula adierazten dugu.



Leitzako Amnistiaren Aldeko Mugimendua

Inongo baldintzarik gabe, kalera orain!

Kondenak oso-osorik beterik izan arren, preso Gure 170 senide inguru kondizionalean kaleratzeko epean sartuta daude, baina ez dituzte askatzen. 140 espainiar Estatuan preso, urrundurik eta bizi baldintzarik gogorrenetan mantentzen dituzte. 140 senide horietatik, 23k, halaber, espainiar Estatuak ezarritako kondena beldurgarriak oso-osorik beteta dituzte. Baina hala ere ez dituzte askatzen. Auzitegi Gorenaren 197/2006 sententzia aplikatu, eta, espetxe zigorrek hainbat urtez luzatu egin dizkiete. Iñaki De Juanari, berriz, asmakizun juridiko-politikoak argudiatuta, 3 urtez luzatu diote espetxe zigorra. Frantziar estatuari dagokionez, 30 bat senide preso politikok baldintzapeko askatasunean beharko lukete egon. Baina, horiek ere preso, beraien ingurune familiar, sozial eta politikotik urrundurik, eta, bizi baldintzarik gogorrenetan mantentzen dituzte.

Entzutegi Gorenaren 197/2006 doktrina aplikatu ostean preso jarraitzen dutenak:

- Jose Ignacio Gaztañaga Bidaurreta
- Txerra Martinez Garcia
- Txomin Troitiño Arranz
- Koldo Hermosa Urrea
- Joseba Artola Ibarretxe
- Peio Etxeberria Lete
- Jesus Bollada Alvarez
- Kandido Zubikarai Badiola
- Patxi Gomez Lopez
- Jon Agirre Agiriano
- Antxon Lopez Ruiz
- Jon Ander Urkizu Ormazabal
- Luis Mari Azkargorta Belategi
- Fernando De Luis Astarloa
- Kepa Rezabal Zurutuza
- Juan Mari Gabirondo Agote
- Andoni Alza Hernandez
- Jose Felix Zabarte Jainaga
- Pakito Lujanbio Galdeano
- Imma Pacho Martin
- Juan Karlos Perez Ojuel
- Ines del Rio
- Pello Odriozola Agirre

Kondenak oso-osorik beteta dituzten gure senide preso politikoak ez askatzeko hartu duten neurri bakarra ez da aipatutakoa. Iñaki de Juanari esaterako, asmakizun juridiko-politiko berriekin beste 3 urtez luzatu diote espetxe zigorra. Hasier batean, beste 96 urteko espetxe zigorra ezarri nahi zioten. 3 urtez espetxe zigorra luzatu ostean datorren abuztuan du irteera data.

Zer da 197/2006 doktrina?

Auzitegi Gorenak, joan den urtean kaleratutako 197/2006 sententziarekin, zigorra betetzeko eta ludipenak zenbatzeko modu berri bat jarri du indarrean, kondenak oso-osorik bete ostean kaleratzeaz ziren gure senideak preso mantentzeko helburuarekin. Sententzia hori kaleratu arte, ludipenak 30 urteko zigor topetik kentzen ziren. Orain, ordea, zigor bakoitzarengatik kenduko dira eta horretarako, zigorrek banar banan, larrienetik arinenera, beteko dira tope horretara heldu arte. Esan bezala, kondenak oso-osorik bete ostean kaleratzeaz ziren gure senide preso politikoak 30 urtez espetxeraturik mantentzeko helburuarekin kaleratutako sententzia da aipatutakoa.

Bizi arteko espetxe zigorraren bidean eman dituzten bestelako pausoak

Espainiar eta frantziar estatuak epaitegien zentralizazioak eta lege aldaketak burutu dituzte azken urteetan. Euskal Preso Politikoen Kolektiboaren aurkako neurri guztien kontrol osoa gobernuaren esku egoteko zentralizatu dituzte epaitegiak, eta, euskal preso politikoen aurkako espetxe zigorrek luzatzeko eta eskubide urraketa berriak burutzeko aldatu dituzte legeak. Euskal Preso Politikoen Kolektiboaren aurkako neurri guztien kontrol osoa gobernuaren esku egoteko, Entzutegi Nazional espainiarrean Zentralizatutako Espetxe Zaintza Epaitegia sortu zuten 2003. urtean. Beraz, euskal preso politikoen eskubideen inguruan erabakiak probintzietako zaintza epaitegiek hartu beharrean, Entzutegi Nazional espainiarrean Zentralizatutako Espetxe Zaintza Epaitegiak hartzen ditu 2003. urtetik

aurrera. Frantziar Estatuan ere, euskal preso politikoei ezarritako kondenen jarraipenak lehen espetxe barruan kokatuak zeuden epaitegiek egiten zituzten. 2006ko maiatzetik aurrera "Sarkozy legearekin" Parisen zentralizatua den epaitegiak kudeatzen ditu baldintzapeko askatasun eskaerak, besteak beste.

Lege aldaketei dagokienean, 1996. urtetik aurrera, espainiar Estatuak Euskal Herriarekin duen gatazka politikoaren ondorioz atxilotutako euskaldunei ordu artean indarrean zegoen 1973ko zigor kodearekin ezartzen zizkien zigorrak baino luzeagoak ezartzen hasten da. Halaber, 1996ean indarrean jarri zuten zigor kodearekin, espetxe zigorraldi topea 30 urtetan mantentzen da baina kode berri honekin epaitzen dituztenei erredentzioak (hainbat lan eginez espetxean igaro beharreko denbora murriztea) lortzeko aukerak kendu egin zizkieten.

2003. urtean 1996ean onartutako zigor kodeari erreformak egin zizkieten eta, Euskal Herriarekin duten gatazka politikoaren ondorioz espetxeratutako zigorraldi topea 30 urtetik 40 urtera igo zuten. Halaber, zigorren 3/4ak edo 2/3ak espetxe zigorraldi topetik, hau da, ezarritako zigor guztietatik kalkulatu hasten dira, eta, 3/4ak edo 2/3ak bete ostean kaleratzeko ordu arte zeuden baldintzei, besteak beste, salatzaile bilakatu behar izatearena gaineratu zioten. Hala ere, aldaketa hauek ezin zizkieten zigor kode zaharrekin kondematutakoei aplikatu, eta, kaleratzeaz ziren euskal preso politikoak ere bizi osorako zigortzeko helburuarekin neurri berriak hartu zituzten: lehen azaldu dugun 197/2006 sententzia kaleratu zuten, espetxe zigorra bete eta kaleratu ondoren espetxeratu aurretiko sumario berriak irekitzen hasi ziren, aspaldiko ekintzak kode penal berriarekin zigortu nahian hastea, erredentzioen aplikapenak onartzen zituzten behin behineko ebazpen juridikoak indargabetzea, asmakizun juridiko berriak egitea...

Frantziar Estatuak ere, Euskal Herriarekin duen gatazka politikoaren ondorioz atxilotutako gizon emakumeen zigorrak luzatzeko lege aldaketak burutu ditu. Esaterako, Perben II legearekin,

ordu arte 10 urte arteko espetxe zigorrak zirenak, 10 eta 20 urte arteko bilakatzeko edo, ETAko zuzendaritzako kideetat dituztenei 20 eta 30 urte arteko espetxe zigorra ezartzeko.

Lege aldaketa horietaz gain, kontuan hartu behar da frantziar Estatuan bizi osorako zigorraldia existitu egiten dela. Frantziar Estatuak bizi osorako zigortuak dituen euskal preso politikoei kondizionalean noiz kaleratu daitezkeen jakinarazten die. Lehen, 15 urte preso egon ostean baldintzapeko askatasuna eskatzeko baimena ematen zien. Hala ere, beraien araudiak aurreikusitako baldintza guztiak beteta ere, ez zituzten askatzen, ez bada herri presioak horretara behartuta, Filipe Bidart kasuak erakusten digun legez. Gerora, berriz, kondizionalean kaleratu ahal izateko denbora luzatu egin zuten, besteak beste, 18 urte arte.

Eskubideen urraketa etengabea Sakabanaketa zenbakitan

Maiatza amaierako datuak kontuan hartuz, gure 742 senide preso politiko 3 estatutako 88 kartzelatan sakabanatuta dituzte.

Espainiar Estatuari dagokionean, gure 575 senide 52 kartzela ezberdinetan sakabanatuta dituzte -kartzela barruan ere modulu ezberdinetan sakabanatzen dituzte elkar ez ikusteko-, batz besteko, Euskal Herritik 636 kilometrora. Frantziar Estatuako 34 kartzelatan, berriz, gure 165 senide dituzte preso, batz besteko, beren etxeetatik 801 kilometrora. Halaber, Kanadako bi kartzelatan beste bi senide dituzte preso. Euskal preso politiko horietatik 47, beste euskal preso politikorik ez den kartzela edo modulutan aurkitzen dira.

Ondorioz, gure senide preso politikoekin bisita eskubidea gauzatzeko, batz besteko, 1272 kilometro egin behar ditugu joan-etorrian, espainiar Estatuan. Frantziar Estatuan dituzten gure senide preso politikoak bisitatzeko, berriz, 1602 kilometro egitera behartzen gaituzte, batz besteko.

Ikurriña Leitzako Udaletxean

Ikurriñaren aldeko ekimen berri bat ezagutzera eman dute Leitzan etxeetan zabaldu duten horri baten bidez. Bertan Ikurriñak Leitzan izan duen bilakaeraren errebaso labur bat egiten da.

Ikurriña berreskuratzeko ekimen guztiak txalogarri eta guztiz aipagarriak dira eta horretan leitzar gehienak ados egon gaitezke. Dena den idatzi horretan, aurreko legealdiari buruzko, zenbait adierazpenak ez dira zuzenak.

“2005. urtean, Nafarroako Gobernuak, 1981. urtean onartutako ikurren inguruko erabakia praktikan jartzea erabakitzen du beste dekretu baten bidez.”

Hau ez da horrela. Nafarroako Gobernuak 2003. urtean 1981ko legeak Ikurriña jarri ahal izateko uzten zuen zirrikitua ezeztatzeke, legea aldatzen du. Horren ondorioz zigortu ez zitekeena, hots Ikurriña Udaletxeko balkoian jartzea, zigortu daiteke. Eta lege berri hau da 2005. urtean praktikan jartzea erabakitzen duena, eta ez 1981etako.

“Ondorioz, garai horretan zegoen alkateak, herriari ezer galdetu gabe eta bere erabakiz; 10 urteren ondoren, Ikurriña kendu zuen herrian ezinegona sortuaz.”

Hau GEZURRA da, alkateak ez baitzuen Ikurriña bere erabakiz kendu. Ikurriña kentzeko sententzia

judizial bat heldu zenean, honen berri eman eta zinegotzi guztiak (Larraingoak barne) bi bileretara deitu ondoren, Ikurriña jasotzea erabaki zen Aralar eta EAko zinegotzien aldeko botoekin. Ondoren, erabaki hau batzar batean berretsi zen.

Nonbait, ez zen oso erabaki okerra izan. Udal berria eratu zenez geroztik urte bat pasa eta ez baitute atzera bota, nahiz eta gehiengo osoa izan. Egun puntualetan jartzen dutela esanez garbitu nahi dute beren burua. Zergatik ez dute 2005ean hartutako erabakia atzera bota eta erabat jartzen? Orduko galderak orain ez dira onak? Gainera, orain ere norbaitek kenduko du, egun puntual horiek pasa ondoren.

“Honen ondorioz, Ikurriñaren Aldeko Taldea sortu zen herrian, Herri Kontsulta egin asmoz. Baina, Aralarren jarrera zela medio, zapuzturik gelditu zen kontsulta hau.”

Hau ere ez zen horrela izan. Kontsulta bertan bera utzi zutenak Larrain Herri Plataforma, EA eta Ikurriñaren Aldeko Taldea izan ziren, Aralar deitu ez zuten bilera batean.

Kontsulta honi buruz, Aralarrek argi utzi zuen kontsulta egiteko egin ziren bilera guztietan ez zegoela ados egin zen galderarekin, ez baitzigun Udalean hartutako erabakia defendatzeko aukerarik ematen. Galdera aldatzen saiatu baginen ere, ez omen zegoen beste galdera bat

adostu zutena bezain zuzena. Geroago Goizuetan ikusi zen hori ez zela horrela, baina lortu nahi zutena gu defendatzeko aukerarik gabe uztea zen.

Horren aurrean, Aralarrek galdera harri beste erantzun bat ematea erabaki zuen baliorik gabeko bozaren bidez eta egun batzuk lehenago banatu zituen bere papertxoak, bere erantzun propioarekin.

Gure erabakiari erantzunez, hiru talde haiek herri kontsulta bertan bera uztea erabaki zuten, herriak informazio objektiboa ez zuela argudiatuz. Berak izan ziren, herriari hitza ukatu ziotenak. Gure erabakia ez bazen zuzena, herriak bozetan adieraziko zuen. Baina aukera hori eman beharrean, herria zuzen aukeratzeko prest ez zegoela erabaki zuten, beste garai batzuk gogora ekarriz.

Puntu honekin bukatzeko, herri kontsultaren aldeko taldeak, kontsulta bertan behera gelditu ondoren, berretsi zuen kontsulta eginen zela. Zergatik ez da egin? Zergatik eta galdera berberarekin ez da orain egiten Aralar "oztopoa" ez dela?

Jo dezagun idatzi honetan aipatu ditugun arrazoiak ez dizkizuela konbentzitzen, jo dezagun ez direla zuzenak, nahiz eta aipatzen duguna, guztiz egia izan. Horrela izango balitz ere, begiratu dezagun etorkizunari. Ondo dago herriaren babesa bilatzea eta ekimenak antolatzea, baina gai hau udalaren eskuetan dago, baldintzatuta

ikurren legearengatik, noski. Udalak baloratu behar ditu ondorio legalak, besterik ez. Gure ustez, udala babestu behar zen eta horrela eskatu genuen herri kontsultaren paperetan. Orain aginteak daudenak, alkatearen dimisioa eskatu zuten eta beste aldetik udaletxean ikurriña jartzeko mozioa aurkeztu zuten. Zergatik ez dute orain mozio hori aurkezten? Gogoratu behar da, orduan mozio hori ez zela onartu, Aralar eta EA abstenitu zirelako.

Gai hau, gaurko agintariek, aurreko legealdian eskatzen zutena eginen balute, azkar moldatuko litzateke, ikurriña jarri eta kitto... gero gerokoak, zergatik ez dute ikurriña modu iraunkorrean jartzen?; ez da izanen, guk emandako arrazoiak egiazkoak zirela? Zoritxarrez, denborak arrazoiak eman digu. Lehen ikurriña berehala jartzea eskatzen zutenak, orain jartzen ez badute, zerbaitengatik izanen da.

Esandakoa. Gauzak argi eta garbi utzi eta, ikurriña berreskuratzeko ekimen guztiak txalogarri eta guztiz aipagarriak dira eta leitzar gehienak ados egon gaitzke.



ZORTZIKO LABETXEA KAFETEGI GOZOTEGI ETA OKINDEGIA



- Ogi egin berria
- Prentsa, Gosari goxo goxoa (Iaranja zuku naturala, croissant eta kafea)
- Pastak, Pastelak, Tartak (Enkarguak egun batetik bestera ekartzen dira)
- Zapone guztietako kukurutuzko izozkiak

Pesta onak pasa!



Elbarren 20 Tel. 948 510 720

Gortzadar Igoxokidends
Amazabal, 37 • LEITZA
948 610 756 • 615 100 842
ongi pasa pestak!

G@ZTETXO

ZIBER- GUNEA

- @ INTERNETA
- @ JOKOAK-SAREAN
- @ JUEGOS EN RED
- @ ESKANERRA
- @ INPRESORA



ELBARREN 16 • LEITZA TEL. 948510741

ARANTXA

ileapaindegia

GORA SAN TIBURIZIOAK

Obispo Huarte, 8
☎ 948 610 931

GORRITZ

ERAIKUNTZAK • ESKABAZIOAK

LEITZA (Nafarroa) TLF: 948-510 140/ FAX: 948 510 996

SANTIBURTZIO ONAK PASA!!!



POLIURETANOZKO
BABES ETA
INJEKZIOZKO
ISOLAKETA

AISLAN-LEITZA, s.l.

689 800 371

Santa Luzia pasealekua, 4 B behea Buztintxuri • IRUÑA



EGUZKI ileapaindegia

ASUN eta LIDIA

Ongi pasa pestak

Eibarren 34 - 1.A • ☎ 948 610 649 • LEITZA

LEITZAKO
gasolindegia

Rafael Mugicaren alarguna

948 510 057



ASTIZ ANIAK
ZURGINDEGIA

Klase guztietako egu lanak,
ateak, leihoak, tarima,
armairuak eta kristaldegia

ONGI PASA PESTAK!!

948 610 606 • 948 510 285

LEITZA ANIAK SL
eraikuntzak

aupa San Tiburtzioak!

Lizarraga, 17 • 948 610 927 - 948 610 934


EROSLE



SUPERMERKATUA

Gora San Tiburtzioak

☎ 948 510 007 ☎ 948 610 657 • LEITZA



LEIZA
MANDRILADORA

ONGI PASA PESTAK!



Eluseder Pol. Ind. - Tel. 948 510 600 - 948 510 601 • Faxe 948 510 602

PERURENA
harategia

Hemengo zekorretan espezialitatea
Urdaitegia

☐ *Jai Zoriontsuak opa dizkizue* ☐

Tel.: 948 51 01 64

OLIVEIRA - VICENTE

ERAIKUNTZA

Ongi pasa San Tiburtzioak

Amazabal Kalea 17, 3.B. • Leitza • 948 510 516

BELAR DENDA




Belarra

Telf. 948 51 01 92 - **LEITZA** (Nafarroa)

Pintura lanak
orokorrean

MELO
pintura lanak

Tfnoa: 609 873 178 · LEITZA



BEATRIZENEA
TABERNA-JATETXEA

PESTA ONAK
IGARO

MENUA • OTARTEKOAK • KAXUELITAK • PINTXOAK

Mikel Deuna, 2 • Tel: 948 510 991 • LEITZA



ARDI-GAZTA

Gorritz

*Pesta alaiak pasa ditzagun
errepresaliatuak gogoan ditugula*

Xabier Sestorain • Gorritz baserria • LEITZA • 948 510 570

SAGARDOTEGIA SIDRERIA

ERREKA



948 510 625

Erreka auzoa

Leitza

AUPA

SAN

TIBURTZIOAK

LEITZA • Autobideko irteeran gaude Leitzarako norabidean




PELUQUERIA

ETXEIDE

ILEAPAINDEGIA

Elbarren 35 - Tel. 948 510 738 - LEITZA



**URTU
KARROZERI**

TXAPA ETA PINTURA KONPONKETAK
Jesús Azurmendi Jauregi

Ongi pasa San Tiburtzioak!

Kamineros etxea **BERASTEGI**

☎ 943 68 34 99 - 948 61 06 64

denontzat
MERTZERIA

Jostun tresnak, galtzerdiak eta
azpiko arropa

Tel. 948 51 05 61 • LEITZA



**PERITZA
TABERNA**
PESTA ONAK PASA
ETA TXINTXO IBILI

ESKERRIK ASKO ANTOLATZAILE GUZTIEI



Olala

Bazar

ONGI PASA BESTAKI!

LOREAK
PAPERTEGIA
JOSTAILUAK
HERRAMINTAK
ETXeko TRESNAK
JANTZIAK
GARBIKETARAKO
PRODUKTUAK

LEITZA • Elbarren, 36-37 beheha • 948 510 437

**MENDIGORRI
elkartea**

Pesta onak igaro

Patxi Arrazola • LEITZA



KAPRITXO

- * Opariak
- * Bitxiak
- * Neska eta mutilen arropak

ONGI PASA PESTAKI!
Landa Ind. 948 510 994

JEIKI ABESBATZA

Gora San Tiburtzioak!

www.jeikiabesbatza.com
jeiki.leitza@gmail.com
Tel.: 948 510 512

MAIMUR

- Prentsa • opariak • testu liburuarak
- Plastifikatzeak • enkuadernatzeak
- Inprenta lanak • fotokopiak

ONGI PASA PESTAKI!

Herriko Plaza
LEITZA
Tfnoa-Faxa:
948 510 146

ONGI PASA PESTAKI!

Lizarraga
harategia

Herriko Plaza • Tfnoa 948 51 02 83 • LEITZA

SAGASTI JATETXEA

ongi igaro pestaki!

Elbarren, 98 • LEITZA • 948 610 637



Gosariak • Kaxuelak • Ogitartekoak
Bazkariak • Afariak

Jose Ignacio ARZALLUS

Harategia • Urdaitegia • Etxeko txistorra

Tfnoa: 98 510 377 LEITZA

Tfnoa: 948 638 042 BERASTEGI

Jai zoriontsuak opa dizkizue

BITXILORE LOREDENDA

ONGI PASA BESTAKI

- LORE NATURALA
- LORE LEHORRAK
- EZKONTZETAKO LOREAK
- KOROTIAK
- ETAB...

Elbarren 59 - Tel.: 948 510 654 - LEITZA

TXOKO TABERNA

- Pintxoak
- Otartekoak
- Kaxuelak

JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE



Pesta onak pasa!

BULDAIN inmobiliaria

Tel: 948 510 534
Mug: 649 476 615
LEITZA

Festa eder hauetan zuen nahiak
bete ditzazuen opa dizuet

JOVIZU S.L. EMBALAJES

PESTA ONAK
OPA DIZKIZUE

Leitzalarreko errepidea, 1 km
948 510 053

edr | g u n e a

ongi pasa pestak!

C/ Elbarren 67 bajo 31880 Leitza Nafarroa edrgunea@yahoo.es Tel. 948 510 273

MUSUNZAR
OSTATUA

 · Jatetxea · Logelak

Elbarren, 14 • LEITZA • Tfnoa: 948 510 607 • 948 510 475
ONGI PASA PESTAKI

J.M. HERNANDORENA

Burdindegia • Garbigarriak
Oparidenda • Garraioak

ONGI PASA PESTAK!

Telefona: 948 510 055

 **ZURLAN**

ateak · zurezko leihoak · leiho mistoak · tarimak
sukalde eta armairu enpotratuak zurgin lan guziak **ongi pasa pestak!!**

Goiko Errota - LEITZA
Tfnoak: 948 510 402 - 609 067 123

ORAIN ELKARTEA

*Jai zoriontsuak opa dizkizuz
herritar eta bisitari guztiqi*

LEITZA

GOZOTEGIA

Eguzkitza

Bº Erreka, 3 Bajo - 948 510 614 LEITZA
Elbarren, 35 - 948 610 646 LEITZA
San Frantzisko, 24 - 943 650 041 TOLOSA

g **aztañaga** **a**
taberna

Otarrekoak, Pintxo beroak, Kaxuelak

948 610 708

Ongi pasa pestak!

TXARAGORRI
ITURGINTZA
FONTANERIA

ONGI PASA BESTAK!

Elbarren, 56 (Martikonea) • Leitza • 649 853 440

ASTIZ



Liburudenda

Elbarren kalea Tel/Faxa 948 510 262

- » Prentsa
- » Testu liburuak
- » Opariak
- » Inprenta lanak
- » Eskolako gaiak

Pesta onak pasa



Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

Jatetxe-ostatua

Tfnoa: 948 397 035 / 669 013 294
www.iruso.com

IMELDA LARRAZ

Estankoa, Janari denda etb...

Jai zoriontsuak opa dizkizue

LEITZELARREA S.L

aroztegi metalikoa

Landa Industrialdea, 20

Tel: 948 510 598 - 669 368 991


LEITZA

GARBI

Garbigaidenda eta lurrindegia

948 51 01 73

Ongi pasa besta!



ARAKINDEGIA jatetxea

Menua · Karta
garaien garaiko otorduak

ONGI PASA PESTAKII

Elbarren, 42 · LEITZA

Tfnoa: 948 510 052 · Faxa: 948 510 633



BIKOITZ

Taberna

- » Pintxoak
- » Otartekoak
- » Pastelak
- » Tartak

ENKARGUAK ERE HARTZEN DITUGU
Ongi pasa pestak!

Elbarren, 16 · LEITZA · Tfnoa: 948 510 072

GURATZ-MENDI

K.K.J. ELKARTEA



ongi pasa bestak!

Elgoien, 22
LEITZA

AMAIA



arraindegia

EGUNEKO ARRAIA

ONGI PASA
PESTAK !!

Uharte Gotzaia · LEITZA
948 510 590

Biok Jantziak



Gizonezko, emakume eta umeentzako jantziak

Elbarren, 32 · LEITZA · 948 510 558 · 948 510 477

PLAZA ASEGURUAK

Mota guztietako aseguruak

Pesta onak pasa ditzazuela


Uharte Gotzaia, 8 · LEITZA
Tfnoa: 948 510 338

ARIZTIMUÑO ANAIK eraikuntzak

Lan orokorrak eta berrikuntzak

Ogin pasa pestak


948 510 202 · 948 510 374 · LEITZA



**BANCO DE
VASCONIA**

*Leitzar eta bisitari guztiak
pesta goxo batzuk pasa ditzazuela*

948 510 135 - LEITZA



**Leitzararra taberna
948 510 352 • LEITZA
Pesta onak pasa**

TXAPA PINTURA LEITZA KARROZERIA

Txapa konponketa, kabinan egindako pintaketa eta labean egindako lehorketa, kolpe haundien konponketa (bankada).

Leitze - larreko errepidean **LEITZA**
Tels. 948 51 04 60 - 948 51 05 58 (Etxekoa)

JUBILATUEN TABERNA

Ongi pasa
San Tiburtzioak!

948 610 935

FISIOETXEA Ane Egizabal Lata Fisioterapeuta



- » Errehabilitazioa
- » Osteopatia
- » Kirol eta zirkulazio masaia
- » Erditze aurreko / ondorengo tratamendua:

- Mutuak
- Aseguruak
- Partikularrak

Ongi pasa San Tiburtzioak

Uharte Gotzaia, 8 3.C - LEITZA - Tel.: 948 510 730

JEXCAVACIONES JOARBE S.L

*Jai zoriontsuak
opa dizkizue*

OBISPO HUARTE 8
Tel/Fax.: 948 610 971
Mugikorra: 629 219 068



Grupo Tanatorio Taldea

IRACHE

Maldarreka S.L.
Leitzako Belatokia

**24 ORDUKO ZERBITZUA
BEILATOKIAN ETA ETXEAN**

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA
IRUNGO OSPITALETIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

TEL. 948 63 74 04 • 628 03 02 90

ETXE-TRESNAK S.L ELETROGAILUAK

Instalazio elektrikoak



ONGI PASA PESTAK!!!

**948510208 - 948510181
LEITZA**



ARRARAS
edariak, S.L.

C.I.F. B-31838333

Polg. Eluseder, nave 1ª • ARESO (Navarra) • hnos. arraras@telefonica.net
Tel.: Oficina: 948 1 08 88 • Fax: 948 1 08 3 • Móvil: 630 048 770

KORNIETA ELKARTEA

Ongi pasa
San Tiburtzioak
LEITZA



HARTEGIA-URDATEGIA URKIOLA

*Jai zoriontsuak
opa dizkizue*

Idi haragitan eta hemengo Zekorretan espezialitatea

Tel. 948 510 747 / 948 510 467 - LEITZA



LEITZA

AHOLKULARITZA - ASESORIA S.L

- > Langile autonomoak
- > Nomina eta Gizarte Segurantza
- > Enpresa berrien kudeaketa
- > Kontabilitatea
- > Kotxeen transferentziak
- > IVA eta IRPF
- > Aholkularitza juridikoa
- > Errenta aitopenak



Landa Ind. Suizpi, 3 · LEITZA
Tel. 948 510 990 Fax. 948 510 429

Jai zoriontsuak opa dizkizu



CAJA RURAL DE NAVARRA NAFARROAKO RURAL KUTXA

Pesta onak pasa

Leitzako Bulegoa • Elbarren, 35 • Tel / Faxes: 948 610 735



Leitza Garajea Peugeot Agentzia

STIHL AGENTZIA 6 NEKAZARI TAILERRA

la denok kategorizko pestak pasatzen ditugun

Landa industrialdea Tel. 948 510 466 / 948 510 404 6LEITZA



Dia %

OKABIO

Kafetegia

SUPERMERKATUA

Pesta zoriontsuak
opa dizkizuegu!

Tel: 948 510 731

Dia % Landa Etxea · Leitza

CARLOS SAGASTIBELTZA VILLANUEVA

ARKITEKTU TEKNIKOA

Proiektuak • Aurrekontuak
Berrikuntzak • Obren kontrola
Lur neurketak • etc.

948 610 677 • 629 611 912


Ongi pasa San Tiburtzioak !




TORREA ETXEA

GOSARI, ETA AFARI, EDERRAK

EUSKAL MARTXA ETA
BORROKA ERREPRESALIATUAK
AHAZTU GABE



948 61 09 09



MARGARI TAXIA

Taxia 24 ordiko zerbitzua • Servicio de Taxi 24 horas

Telf.: 608 87 30 16 • 948 6c0 710

31880 LEITZA (Navarra)

Pinturas
ZUBI
Margoak

pinturas en general

Pol. Ind. Usabal nº 14B - 20430 TOLOSA (Gipuzkoa)
Euzkadi 97 2ª planta - 31850 LEITZA (Navarra)
Tel.: 948 510 910 Fax: 948 510 910

ONGI IGARO PESTAK !!



GARBILAN LEITZA S.L.

Obispo Huarte 8, 2. C
Tel. 696 75 56 43

besta onak pasa!

DENAUTO SAGASPER TAILERRA

AUTO KONPONKETA - CITROEN AUTOAK - GRUA ZERBITZUA



Eluserder Industrialdea
Poligono Industrial Eluserder

Tel.: 948 510 610
Faxa: 948 510 917

31876 ARESO
(Nafarroa)

Mikel Zabaleta

abokatua

Pestak ongi pasa!

Tfnoak : 676 24 21 24 / 948 510 541 • mzabaletaa@micap.es

GURIA
KARROZERIAK
TXAPA - PINTURA

P.KALDERON

Txapa

- Neurgailu elektronikoa ordenadorez, diagnosiak bankaden neurria.

Pintura

- Labe kabina. Denetariko pinturak (ekolojikoak, uretara...)

Autoqarriketa

- Garbitzeko ur beroko makina, aspiragailua. Irekita egun guztiak

Berreldaketa

- Denetariko akzesorioak eta berreldaketak (Ilantak, pilotoak, kateak, etab...)

LANDA POLIGONOA • 948 51 02 55 • LEITZA

LEITZAKO
EUSKALTEGIA



948 610 776



Hizkuntza hazia
mintzoaren lore
zazpi itxura eta
hamaika kolore.

Bizi nahian gabiltza
milaka landare
gure baratzakoa
al zara zu ere?

J.Sarasua

LOREA

ileapaindegia eta
solarium-a

Gora San tiburtzioak

☎ 948 610 907 • LEITZA



TALLERES

ONGI PASA PESTAK!

Ireber S.L.

MANTENIMENDU PREDIKTIBOA
INDUSTRI MAKINERIAREN MONTATZE ETA KONPONKETA

Landa industrialdea - Pab. 9B - 10B LEITZA

☎ 948 629 535 - 629 823 191

**Jose Maria
etxeberria**

gizonezkoentzako ileapaindegia

Gora San Tiburtzioak

jm 948 510 282 • LEITZA

Xm

Xabier martinikorena

948 610 678 • 699 659 526 • LEITZA


ongi pasa pestak!!

Pladurrezko sabai eta tabikeak
Isolamendu termiko akustikoak
Etxe moldatzetan espezializatuak
Apalategiak
Sabai desmuntagarriak

Iturgintza lanak
kalefakzioa, gasa
eta zeramika

Gaztelu

Pesta anak pasa!!!



Landa Behikoa Industrialdea 21
31880 Leitza

Tel: 948 510 086

Email: gazteluf@infonegocio.com



**JAI ALAI
OSTATUA**

Tfnoa: 948 510 735 • Faxe: 948 510 736
www.jai-alai.es • info@jai-alai.es

ONGI PASA PESTAK!!

**Sagastibeltza
eta Artola**

Era guzitako igeltsero lanak
Gora Leitzako pestak!

TEL.: 948 510 265 / 948 610 724



LEIMEN

Era guztietako elektrizitate lanak

LEITZA 628 725 396 Argoitz
MENDILLORRI 628 725 397 david

Jai zoriotsuak denoi!!



**ULI-ZAR
ELKARTEA S.L.**

ITURGINTZA, GASA, GASOLEOA, TXIMENEAK

Ongi para Pestak!

Bide onde etxea ARESO • San Miguel, 2 LEITZA
948 510 153 / 948 610 682 / 689 701 557
Larrialdiak: 948 271020

Pagozelay
construcciones

ERAIKUNTZAK • HERRI LANAK

*Jai zoriotsuak
opa dizkizue*

Landa Industrialdea • 17 B 1go solairua
31880 LEITZA • NAFARROA
Tfnoa: 948 510 346 • Faxe: 948 610 962

ETA FESTETAN... ZER?



FESTETAN ERE,
LANAK ELKARBANATUZ

FESTETAN ERE,
ERASOEI EN

FESTETAN ERE,
BERDINTASUNAREN ALDE